

Herririk Herri | 14

Auzoak eta herrigunea batzeko taxi zerbitzua jarriko dute martxan Elorrion



Berbaz | 18

Zeozer elkarteak NA.IT gau alternatiboen ekimena antolatu du astebururako

Kultura | 21

Eskualdeko hiru herritan ikusgai dugun 'Bertsolari' filmaz, zuzendariagaz

ANBOTOK 10 URTE

...eta urte askotarako!



Txelu Angoitia

Abadiño | 16

Gerediagako auzokideak kexu "inkomunikatuta" egon direlako

Durango | 12

'Afrika Durangon' ekimena Udal Liburutegian, azaroaren 12tik 22ra

Berriz | 13

Faroletako argindar kableak lapurtu dituzte belodromoan

Otxandio | 16

Durangaldeko Gazte Topaketak egingo dituzte asteburuan

KIROLA | 23

"Oinak lurrean dauzkagula jarraitu behar dugu lanean"

Athleticen lehenengo taldean dagoenetik aldikadarik gozoena bizi du Ander Iturraspek. Bikote sendoa osatzen dabil Ander Herreragaz.



zorionak anboto!



Familia argazkia eginda ospatu dugu Anbotoren 10. urteurrena

Anboto babestu duten elkarte, erakunde, eragile eta norbanakoekin atera dugu argazkia Plateruenean

Hamar urte Anbotokez dituela urtero betetzen irizita, ekitaldia antolatu genuen martitzenean Plateruena kafe antzokian. Urteotan gure proiektua babestu duten eragile, erakunde, elkarte, kolaboratzaile eta norbanakoei eskerrak eman eta ale berezi honetako azaleko protagonista izan daitezen eskatzea izan da asmoa. Izan ere, Anboto denon bultzada barik ez litzateke gaure egundena: Durangaldeko euskara hutsezkoa hedabide bakarra. "Herrigintzatik sortu genuen proiektua; herrigintza helburu sozialekin lotutako elkarlan moduan ulertuta", azaldu zuten ekitaldian Anbotoko zuzendariak.

Hitzorduari erantzunez, hainbat arlotako gonbidatuak etorri ziren Durangoko Plateruena kafe antzokira. Politika arloan, EAJko ordezkariak hurreratu ziren; Durango, Iurreta eta Berrizko alkateak, beste

Durangaldean euskaraz bizitzeko helburuaren aldeko elkarlana da gure herrigintza

teak beste, eta Oskar Zarrabeitia Amankomunazgoko presidentea. Bildutik Durangoko hainbat zinegotzi - Urdaspal Bolinaga buruztela-, Abadiñoako Maria Luisa Larringan, Rosa Elizburu Atxondoko alkatea eta Otxandioko alkate Santi Uribe, beste batzuen artean. PSE-EEko Idoia Agorria eta Pilar Rios, Aralarreko Iker Urkiza eta PPko Juan Jose Gastañazatorre eta Adrian Castro ere ekitaldian ziren.


Anboto herrigintzatik sortu genuen, eta elkarlanari eutsiko diogu deneriko eragileekin

Elkarteei dagokienez, berriz, Tabirako saskibaloi taldeko ordezkariak, Iurreta txirrindulari elkarte-kideak, Berbaro elkarte-kideak, Gerediaga elkarte-kideak, Udal Euskaltegiak, AEK-koak, EHEko kideak, KARRIKA antzerki taldekoak, Kurutzia eta Ibaizabal ikastoleak, Platerueneko ordezkariak zein San Agustin kulturgunekoak ere bertan ziren. ■ J.D.



Goian martitzenean Plateruenean egindako ekitaldia; behean orain hamar urteko aurkezpena.

"Zorionak Anboto!" esan digute Durangaldeko hainbat lagunek



Koikili Lertxundi
Futbol jokalaria

Hamar urte denon berri ematen, hamar urte gure herrien arteko komunikazioa hobetzen, hamar urte elkarregaz bidea jorratzen. Zorionak Otxandiotik, eta beste hainbeste betetzea opa dizuet.



Eneritz Iturriaga
Txirrindularia

Hamar urteotan ikusi da Anbotok garapen handia izan duela, inguruko herrietako albiste guztiak ditugulako bertan. Kirol arloan ere oso eguneratua egon gara. Horrela jarraitu, eta eskerrik asko!




Felix Arkarazo
Aktorea

"Badira hamar urte Mari ez doala Oizera. Hain dago pozik Anboton...!"



Maddalen Iriarte
Kazetaria

Hemendik aurrera hirugarren eskua beharko dugu Anbotok beteko dituen urteak kontatzeko. Eskerririk asko zuen lanagatik, eta zorionak!



Ander Garaizabal
Logela Multimedia

Ni ere Anbotora igo nintzen eta geroztik ez naz bajatu! Eta ikusten da euskaldun jendea lanean, euskaraz idazten, irakasten, musika, antzerkia, filmak eta bertsoak euskaratik sortzen, eta Anboto hor, betiko lekuan, gure lanen berri ematen.

Pozgarria da.

Animo Anbotoko langile eta kolaboratzaileei, eta eskerririk asko euskaraz bizitzeko laguntzeagatik!



Pablo Berasaluze
Pilotaria

Zorionak, Anboto, zure 10. urteurrenean. Durangaldeko berri euskaraz ematen beste hainbeste urte gutxienez egin ditzazula! Gu, beste aldetik, Anboto bultzatzeko gure alea ipintzen saiatuko gara.



Izaskun Ellakuriaga
Kazetaria

Zorionak. Erazen bideagarai berrietara egokituz behar handia egiten zabilta euskaraz bizitzeko dugunontzat. Eskerririk asko! Sare sozialetera saltoa prestatzen zabilatzela jakindut. Sarean itxarongo zaitut ba!



Miren Amuriza
Bertsolaria

Hamar urte: eskualde bat, kandelabi, albisteak dozenaka, irakuleak milaka... Lau lerrotan sartzeko baino gauza gehiago esan daitezke Anbotori buruz. Plazer bat da bari-ku arratsaldero postontziko atearekin batera, Durangalde osoa ikusten den leihotxo bat zabaltea. Zorionak!



Ismael Iglesias
Margolaria

Eskerririk asko gure inguruko informazio eta iritziarentzat leku bat eraikitzearen, gure altxorrik handiena mantenduz: euskara. Ilusioa, ahalegina eta zorrotasuna mantentzera animatzen zaituztet.



Eskerrik eta zorionik beroenak, urteongatik, Anbotoko lagunoi!

Urtero fidelitasuna erakutsi duten 152 'Anbotoko lagun' ditugu Anboto Komunikabideak-en

Anbotok hamarkada bete du. Durangaldean euskara hutsezko hedabide bakarra dugunak hainbat gorabehera bizi izan du ibilbide luzeotan. Momentu larriak ere bai, eta jasotako elkartasun eta laguntza handia eskertu beharrean gaude. Eskerrik beroenak eman beharrean gaude, urtero, hutsik egin barik, Anbotok aurrera egin dezan egingdako ahalegin horregatik! 2004tik

Anbotoko lagunaren artean hainbat sari egingo ditugu zotz: otzarak, bidaiak...

2004tik hona, urtero, 20 euroko laguntza jasotzen dugu Anbotoko lagunengandik

euren fidelitasuna erakutsi diguten 152 Anbotoko lagun ditugu. Urtean 20 euroko laguntza eskaintzen digutenak. Fidelitasuna eskertzeko informazio zuzenagoa bideratuko dugu aurrerantzean, eta hainbat sari zotz egingo ditugu: bidaiak, otzarak...

Hamar bete ditugu eta beste horrenbeste urte beteko ditugu. Bidelagun izango zaituztegun gaude, eta bidelagun berriak ere pozik hartuko ditugu, oraindik orain, euskarazko komunikabideak laguntza beharrean gaude-eta.

Erakundeei deia

Aurten, gainera, Euskal Herriko hainbat komunikabidegaz batera, Jaurlaritzari eta aldundiei ere eskari zuzena egin diegu diru-laguntzak igo, publizitate instituzionala jarri eta inbertsioetarako laguntza bideratu dezaten. ■ A. B.



Paul Astigarraga
Jubilatua

Zelan ikusten duzu Anboto?
Oso ondo ikusten dut. Euskarari bultzada emateko tresna ere bada, euskaraz irakurtzeko ohi-tura bultzatzeko. Anboto irakurtzen da; batzuek gehiago eta beste batzuek gutxiago, baina, irakurtzen da. Egia da teknologia berrietara, webgunera ez nazela lar hurreratu.

Informazioari dagokionez gustuko dozu?

Begiratua ematen diot barikuro Anbotori, eta nik neuk dena ondo ikusten dot. Iritziak ere

gustuko dit; denetarioak eta Durangalde osokoak.

10 urte egin ditu Anbotok. Zelan ikusi duzu eboluzioa?

Hobera joan da dudarik barik. Gogoan ditut lehenengo pausoak: Abadiñoko plazan batu ginen danok bultzada emateko. Beste 10 urte egin behar ditu Anbotok; urteak gehitzen joan behar da, hobetzen.

Beharrezkoa deritzozu Anboto lako proiektu bati?

Guztiz beharrezkoa ikusten dut.



Ziortza Onaindia
Liburuzaina

Zer deritzozu Anboto proiektuari?

Oro har, oso ondo deritzot. Falta genuen komunikabide bat da: gertuko albisteak gure hizkuntza naturalean jasoko zituen hedabidea. Dagoeneko 10 urte bete ditu eta ikusi da; egin duen bidea. Asko hor egoten gara, barikuro Anboto astekariaren zain.

Zelan baloratzen duzu egindako eboluzioa?

Uste dut jakin duela aurrera egingen. Oso permeablea izan da eta

ondo egokitu da teknologia berrietara ere. Hor dago webgunea ere.

Zer nabarmenduko zenuke bilakaera horretan?

Ez da erraza komunikabide txiki batentzat, baliabide gutxigaz batez ere, ekonomikoki aurrera egitea eta hobetzen saiatzea. Hor mantetzea lortu du Anbotok. Nabarmenezkoa da Anboto eta gero beste batzuk ere sortu direla, txanpinoiak legez, baina, Anboto hortxe mantendu da.



Kepa Bengoa
Metaleko langilea

Noiztik jasotzen duzu Anboto etxean?

Sortu zenetik; hamar urte, beraz. Durangaldeko herrietako zein auzoetako berri jakiteko oso baliagarria da. Auzoetako errealitateetan lanean gabiltzanon bozgorailu moduan funtzionatzen du Anbotok. Bestela, auzo txikietako berriak ez dira zabaltzen.

Auzoetako berri jakiteko egokia da, beraz.

Bai, eta horrez gainera emandako informazioa

euskaraz ematen du, eta hori ere kontuan hartzea da. Euskarazko hedabidea gara, eta inguruan gertatzen denaren berri euskaraz jasotzen dute Durangaldeko herritarrek. Fundamentals da alderdi hori ere.

Beste hamar urte egingo ote ditugu?

Bai, seguru. 20. urteurrenera helduko gara, bai alabai, eta urteurren hori ere ospatuko dugu. Aurretik, ordea, erronka asko ditugu.



Jose Mari Uriarte
Irakaslea

Zer deritzozu Anbotori.

Eraz asko gustatzen zitzaidan, eta Anboto ere hartzen dut. Duen lokailu funtzioa oso inportantea da; informazio trukea. Agenda gustatzen zait, batze funtzio inportantea du; kirolelan jasotzen ez diren tokiko zerak daude. Astekari izatea, baina, traba da aktualitatea lantzean. Erreportajeak gehituko nituzke informazioa ahaztu barik.

Eboluziorik ikusi duzu?

Hobera doa dudarik

barik. Mamia du, itxura ona eta landutakoa, denontzako informazio eta iritzi anitzekin, gorabeherak egon arren. Proiektua sendotuz doa. Ez da ametsa, errealitate hutsa da; aurrera doa.

Behar dela uste duzu?

Euskaraz egiten den guztia da beharrezkoa, baina erantzuna da gakoa. Kulturaren euskaraz sormatutakoak mugatuak direla esango nuke. Maiztasuna handitzeko ahalegina egingo nuke, baina...



Uxune Martinez
IKT-ko koordinatzailea

Anboto jarraitzen duzu?

Bai, internet bidez gehiago. www.anboto.org-en sartzea errezagoa zait.

10 urte bete ditu. Igarri duzu aldaketarik?

Eboluzioa ikusi daiteke. Ikuspuntu aldetik herrietatik haratago zabaltzen saiatu da, gai orokorragoekin, hainbat iritzi eta lanbideko jendeagaz.

Nabarmenezko ezer?

Teknologi oso zalea izanik, orain 'urs' bidez jasoa daiteke informazioa, eta

inportantea deritzot sare sozialetara salto egiteari. Oso erabilgarria da horri heltzea.

Arintasuna gehitzea?

Bai. Paperean jasotakoa askotan 'zahartuta' gertatzen da, freskotasuna galtzen du.

Kenduko zeunke ezer?

Herri txiki batekoa naiz, eta berri asko iragarkioholekoak dira. Herri guztiak batu behar dira eta txikietan zailtasunak daude bai, baina...

Durangaldeko Baserritarren Elkarte

Murueta, 6 - Tel.: 94 681 87 92 - 48200 ABADIÑO - BIZKAIA

- Oinetako patologiak
- Neurriera egindako plantillak
- Oinetako beste hainbat gaitz

Urte askotarako!

©IMQ AEGON SERSANET SANITAS

Herriko gudarien kalea, 10 - behea
48200 DURANGO
Tel./Faxa: 94 621 54 04

Almara Urreta Jainaga
PODOLÓGOA 188. Elkargokidea

“Durangaldetasun sentimenduak sinesgarritasuna lortu du Anbotori esker”

Duela hamar urte Anbotoren ale erraldoi bat zeraman ibilgailuagaz ibili ziren herririk herri proiektua aurkezten; gaur egun, oraindino ere, Idurre Maortuak eta Gorka Barruetabeña Anbotoko zuzendaritzan jarraitzen dute

Zelan gogoratzen duzue Anbotoren jaiotza duela 10 urte?

Idurre Maortua: Eraz aipatu beharra dago, ezer baino lehenago. Din A4ko aldizkaria zen hura, eta 3.000 ale banatzen ziren. Garai hartan, Deba-goienan herri komunikabideei hedapen handiagoa emateko mugimendua zegoen *Goienkariagaz*. Kostuak merkatzeko egunkari paperera pasatu ziren, eta doan banatzen hasi ziren... Eta geuk ere plazara gehiago zabaltzeko premia genuen.

Gorka Barruetabeña: Irakurle kopuruan apur bat ataskatuta geunden. *Goienkariko* Joxe Aranzabal etorri zitzaigun marketing azterketa lako bat egitera. Harpide kopurua igo genuen, gai gehiago jorratu, espazio handiagoagaz... Horrek formatua aldatzera eroan gintuen. Beste alde bat zera zen; *Eraz* Durangotik sortu zela, eta gero zabaldu zela eskualde-*ra*. *Anboto* eskualdeko euskara elkarte bultzadagaz sortu genuen; Elorrioko Barriketan, Iurretako Geurien Bai, Durangoko Berbaro eta Zaldibarko Eixu. Helburua Durangaldean erreferente bihurtzea zen.

“Eskualdean erreferente bihurtzea gura genuen, eta lortu dugu”

Herririk herri ibili zineten Anbotoren aurkezpenak egiten.

G.B.: Herri guztietara joan ginen, eta arrakasta izan zuten aurkezpenek. Otxandiora joan ginenean Urkiola itxita egon zen, baina hara ere heldu ginen. Durangaldetasunak sinesgarritasuna hartu zuela esango nuke. Jendeak oso ondo hartu gintuen sentazioa daukat; hedabide bat gura zuten, herri guztiei eta errealtate guztiei kasu egingo ziena.

Hamar urte hauetako bidearen zelako balorazioa egiten duzue?

G.B.: Lortu gura genuena lortu dela uste dut; erreferentziatzko komunikabidea da *Anboto*.

I.M.: Herrien erakusleioa dela uste dut. Kultura aldetik, Durangaldeko mugimenduak *Anboto*n plaza garrantzitsua dauka; iritzien atalean ere erreferentziatzko jende askok idazten du... Nire kezka zera da: euskarazko prentsan aurrekusten genuen D eredia hedatu eta euskal-



“Anbotoren bokazioa informatzea da; herritarrei berriak eman, iritziak jaso, orekatua izan... eta herrien erdiguneetara zein baserrietara heltzea”

duntzea zabaldu ahala irakurle kopurua proportzioan haziko zela, eta ez dut uste horrela izan denik.

G.B.: Produktu oso orokorra delako, beharbada, belaunaldi berriak ez dira identifikatuta sentitzen. Gazteak engantxatzea ez da erraza.

Durangaldeko euskara elkarte bultzadagaz jaio zen Anboto. Elkarte errealtatea asko aldatu da.

I.M.: Berbaro izan ezik, beste elkar-

teak desagertu egin dira; gaur egun ez daukate lan dinamikarik. Uste dut *Anbotok* eskualdeko herrigintzara zabaldu behar dugula. Plateruena eta Berbarogaz hartu-eman estua daukagu, eta eskualdeko beste herrietako elkarteekin babes hori topatu beharko genuke.

G.B.: Azken finean, *Anboto* Durangaldeko herrigintzak egiten du. Eta herrigintza elkarteek, udalek eta pertsonak egiten dute. *Anbotoren*

Idurre Maortua eta Gorka Barruetabeña

▪ *Anbotoko* zuzendaritzako kideak dira. Hasieratik daude proiektuan.

“Anboto herrigintzatik sortu genuen, eta herrigintzaren babes behar dugu orain ere”

sorreran jabetzaren zati bat udalei eskaini genien; beti ere, zalantzan jarri barik euskaraz izango zela, denari buruzko informazioagaz, guztien iritziekin... Inork ez zigun erantzun.

Etorkizuna zelan ikusten duzue? Non-dik jo beharko luke Anbotok?

G.B.: Eskualdean erdarazko komunikabideek mundu erdalduneko errealtatea agertzen dute; mundu euskalduneko errealtatea agertzen duen bakarra *Anboto* da. Horretan jarraitu behar dugu, ditugun baliabideekin.

I.M.: Interneten ahalegin txukuna egiten dugu www.anboto.org-gaz, eta hori da bidea gazteei begira. Telebistarenak ametsa izaten jarraitzen du, baina bagabiltza bideoak egiten. Intereseko irudiak eskuratze-ko moduan gaude *Anboto*n; gertutasuna gure abantaila bat da.

G.B.: Babes handiagoa eduki beharko genuke. 10.000 harpide ditugu, baina laguntza handiagoagaz 20.000rengana heldu gintezke. *Anbotoren* bokazioa informatzea da; herritarrei eman, iritziak jaso, orekatua izan... eta herrien erdiguneetara zein baserrietara heldu. Komunikabide erdaldunek ez dute horrelako bokaziorik, baina guk baino publikitate gehiago edukitzen dute.

I.M.: Nik uste dut Durangaldean gehiengo batek *Anbotoren* ildo editorialagaz eta helburuekin bat egiten duela, baina publikitatea jartzekoan kontraesanak agertzen dira; askok gurago du erdarazko komunikabideetan agertu. Azkenean, balio erantsi bat da aldizkaria euskaraz egitea, baina batzuetan eragozpena ere izaten da. ■ A.Ugalde

Bertako okela
Aurretiaz prestatutako janariak
Askatasun etorbidea, 1
Tf: 94 681 76 58
48200 DURANGO
Segi horrela!

El Fondo del RECONOCIMIENTO MUNDIAL DE MOWILLAS MEXICANAS
GANADORE del premio, con el título de
SEÑALADO ORIGINALEN MUNDUKO ERAKARITZARREAN, TXARREKETAK
egon-mutua, txarreketa
ODOLOSTETAN GAILEN - 2009
Eminencia en la elaboración de Morcillas
Alberdi Harategia
Elaborado en el Celler de la OBANJA, de Bilbao, sede de la Academia del Cerdo "TXARRONJA"
El año del cerdo a los cinco. Haratzen, haratzen, haratzen

Tokian tokikoa momentuan bertan jasotzen duen webgunea eskura

Durangaldean gertatutakoa berehala jasotzea du helburu www.anboto.org webguneak

Anbotokomunikabideak-ek 2003ean sortuzuen webgunea, informazioa herritarrengana eta herritarrak informaziora heltzeko bide berria zabalduz. Internetek eskaintzen zituen aukerak geure eginez, informazioa eskaintzeko modu berri horri ekin genion; tokian-tokian gertatzen zenaren oihartzuna une berean eta berehala emateko helburuz, beti ere, kazetaritzaren betiko balioei utsuta: argitasuna, zehaztasuna eta aniztasuna.

Harrezkero zortzi urte joan dira, eta denbora horretan guztian hainbat aldaketa izan ditu www.anboto.org webguneak. Internet bere nortasuna osatzen eta aurretik arakatu bako esparruak ezagutzen joan den heinean, Anbotok ez dio beldurrik izan bere eragina eremu berri horietara hedatzeari.

Datorren astetik aurrera sare sozialen itsaso zabalean murgilduko gara, bertan igerian dabil-tzan milaka eta milaka lagunengana hurreratzeko asmoz.

Hala ere, ez ditugu webgune-ko atalik erabilienak baztertuko. Orain arte legez, albistea non Anbotok hantxe egongo da, ekitaldia kamaragaz grabatu eta editatu ondoren, webgunean ikusgai ipintzeko. Beste hainbeste esango dugu 'Argazkitek' ataleko argazkiei buruz ere. Gogoratu gura

Ekitaldiak kameraz grabatu eta ikusgai jartzen ditugu, informazioa bizitasunez osatuz

Sortu zenetik hona hainbat aldaketa izan ditu webguneak, gaurkotatuta mantentzeko

dugu, gainera, gure atea zabalik dagoela eta kazetari sena duen edonork helarazi diezagukeela berak grabatutako bideoa edo ataratako argazkia. Guk gustu handiz eskegiko dugu sarean. ■ J.D.



"Sare sozialak informazio emari etengabea eta berehalakoa dira"

Anbotoren Facebook eta Twitter kontuak sarean egongo dira laster



Anbotonsare sozialen bideari ekingo diogu facebook eta twitter kontuen bidez. Laster, gura duen edonoren eskura egongo dira gure webgunean eta interneten. Anbotoko zuzendari Jone Guenetxeak urrats berri horren gaineko zehaztasunak eman dizkigu.

Twitter eta facebook kontuak ireki ditu Anbotok. Internet gizarteratu zenean mundu berria deskubritu genuen moduan, sare sozialekin beste mundu bat zabaldu zaigu orain. Albistea egunkarietan, aldizkarietan edo webguneetan gorpuzten dira normalean, baina albistea eman denetik hedabideetan argitaratzen den bitartean sare sozialetan bide luzea egina izaten dute sarritan; beraz, gertakarien eta herritarren bitartekari garen heinean, garrantzitsua deritzogu ere-

"Albistea hedabideetan argitaratu aurretik, sare sozialetan bidea egina du"

mu horretan ere zuzenean eragiteari.

Informazioa jasotzeko izango da? Sare sozialak lan tresna erabilgarria da beste kontu askotarako ere. Informazioa jasotzeko ez eze, gertakari konkretu batek eragin dituen iritziak jasotzeko, esate baterako. Baita herritarrekin hartu-eman sustatu eta sendotzeko ere; kazetari eta herritarren arteko harresi ikusezin hori eraitzi egiten du zelanbait. Eta zer esan zabalkundeari buruz; sarritan, kazetariok ezagutu orduko barreiatzen dira berriak sare sozialetan.

Zelan egongo dira eskuragarri? www.anboto.org-en facebook zein twitterrera sartzeko modua izango da. Webgunearen goialdean eskainiko dugu aukera. Horrez gainera, sareak dioena jaso gura dugu tarte batean; twitterlari interesgarriek diotena jasoko dugu, edo gai konkretu bati buruz sareak dioena ekarriko dugu webgune-ra. Informazioa eta iritzia emateko beste modu bat da. Gure albistea ere, jakina, sareratuko ditugu denen eskura ipiniz. ■ J.D.

urutiaga gremioen koordinazioa
Solaguren kalea 3
Tel.: 94 681 44 74
Faxa: 94 621 53 74
E-mail: urutiaga.ale@terra.es
MATIENA ARADIÑO
BAINUGELAKO KOMUN ONTZIAK ETA BEROGAILUAK
AXULEI, ZOLADURA, TEILA, ZERAMIKA, HORMIGOI,
ERAKUSKETA, SALMENTA ETA EZARPENA
Zorionak Anbotok!

BILBAO ASEGUROAK
Jabier Rueda
Grupo CATALANA OCCIDENTE
10 urte eta hain gazte!
Jose Antonio Agirre Lehend. 8 • 48200 Durango
Tel.: 94 620 27 10 • Faxa: 94 681 65 77

Betikoak
flexografia
ofizinarako zigiluak
fotolitoak
aurrera Anbotok!
Bixente kapanaga, 9 - 48215 IURRETA
Tel.: 94 620 22 41



Astekaria inprimategitik zure postontziraino eskurik esku daroan soka

12.000 aleren bidean, barikuro Durangaldeko etxeetara ailegatzeko da Anbotok, jende askoren lanari eskerrak

Barikuro, goizeko 09:00ak aldera etortzen da aste osoko lanaren fruitua egoitzara. Errotatibako labearen beroa galtzeko astirik barik hasten gara banaketan. Goizetik arratsaldera bitartean, banatzaileak banan-banan igarotzen dira egoitzatik, dagozkien aleak hartu eta herrietara abiatzeko.

Hogeita hamar bat dira banatzaileak, bakoitza bere herri eta helbideekin. Lagun talde horren gehiengo gaztea da, baina urteetako esperientziadunak ere badago tartean. Poltsa, motxila zein kotxeetan Anbotoren aleak hartu eta etxez etxeko martxan joaten dira, txirrina jo eta buzoiara heltzeko.



Harpidedunekin lotura

Banaketa ez da, baina, egun bateko kontua. Anbotoko banaketa sailean aste osoan eguneratzen ditugu zerrendak, bezeroen oharrak jasoz eta harpidetza berriak erraztuz. Doan eskaintzen dugu Anbotok, eta berau jasotzeko anbotok@anbotok.org helbidera idatzi edo 94 623 25 23 telefonora deitzea besterik ez da egin behar. Bezeroen ekarpenak jasotzeko ere bide bera erabili daiteke; zerbitzua hobetzeko asmoz, eskertu egiten ditugu ekarpenak.

Aste osoan eguneratzen dira zerrendak, oharrak jasoz eta harpidetza berriak erraztuz

12.000 etxetara ailegatzeko bidean gaude Anbotok. Durangaldeko albisteak astero, kalitatez eta euskaraz irakurtzeko aukera eskaini guran, gero eta irakurle gehiagoren arreta bereganatzea da gure helburua. Norabide horretan, garrantzia handikoa da banatzaileek astero kalez kale egiten duten beharra. ■ M.O.

Auzoetara sasoiz ailegatzeko modua egiten duten lagunak

Auzoetara posta arrunta erabiliz bidaltzen dugu Anbotok. Zerbitzua dela-eta, egun batzuk geroago ailegatzeko da askotan. Hori ikusita, hainbat auzotako herritar batzuek euren inguruan banaketaz arduratzea erabakizuten, barikuro sasoiz jaso eta albisteak gaurkotasunez irakurtzeko aukera edukitzeko.

Idea horregaz hasita, dagoeneko urteetan dihardute zeregin horretan gure lagun hauek: Maria Luisa Larringanek, Maribi Carrillok eta Kristina Mardarasek baserrikeri baserri egiten dute ibilbidea

barikuetan. Maria Luisak Abadiñoako Gerediaga auzoko ardura hartu du, Kristinak Iurretako Oromiño eta Bakixakoa, eta Maribik Berrizko Andikoa ingurukoa; Mallabian ere berak banatzen du.

Esperientzia eta ohiturak

Kristinak, adibidez, Justo Alberdi senarraren, Bene Garateren eta Marisol Agirre-ren laguntza izaten du buzoiak betetzeko. Maribi mallabitarra, berriz, ogi-banatzailea ere bada, eta ogiagaz batera Anbotok zabaltzeko aprobeztatzen du. ■ M.O.





EGIN ZAITEZ HARPIDEDUN



Astero etxean DOAN jaso dezazun egiten dugu behar

12.000 BAIETZ!

anboto
komunikabideak



Harpidedun berrien artean asteburuetako egonaldiak zotz egingo ditugu.

HARPIDEDUN EGITEKO **3** AUKERA DITUZU:

1 anboto@anboto.org
helbidera idatzi.

2 946816558
telefonora deitu.

3 Kupoia bete eta
bidali Anbotora.

ANBOTO ASTEKARIA - Bixente Kapanaga 9 - 48215 IURRETA



Izena Abizenak

Telefonoa E-posta

Helbidea..... Herria.....



Hamabi herrietako hamaika txokotan grabaturiko bideoa osatu dugu asteon

Bideografik ekoiztetxeak prestatu du Anbotoren 10. urteurrenerako bideoa; ikusgai dago sarean

Durangaldeko hamabi herrietako hainbat txokotan grabaturiko ehunka irudigaz eta gaur egun Anboton beharrez dihardugunon aurpegiekin osatutako ikus-entzunezko mosaikoa da Bideografik-ek Anbotoren hamargarren urteurrenerako prestatu duen bideoa.

Rick Mereki-ren *Move* lanean dago minutu bateko iraupeneko bideoa oinarrituta, eta Canon EOS 7D kameragaz grabatu zuten Dabid Maeztu eta Eukeni Arriortuak.

Orain hamarkada bat Anboto martxan hasi zenean ere grabatu genuen iragarkia

Kelsey James musikariaren pianoaren soinua nagusi duen *Play On* kantaren soinua banda darama dagoeneko sarean ikusgai dagoen bideoak.

Orain hamar urte ere, euskara hutsezko Durangaldeko Anboto astekariaren proiektua herriz herri ezagutzera emateko iragarkia prestatu genuen.

Hamar urte geroago, interneteko www.anboto.org webgunean ere bideoak zabaltzeko dauzkagun baliabideak aprobetxatuta, astero-astero Anbotoko orrietako protagonisten bizipenen lekuko diren Durangaldeko hamaika txokotan zehar ibili gara Anbotoko langileak eta Bideografik-eko lagunak grabazioa egiten.

Hurrengo eraikuntza

DURANGO

ZARATE ELEXPE
ERAGILEAK

Zorionak Anboto!

Elorrion ere aukera onak

Bixente Kapanaga 19, behea • Tel.: 94 681 66 73 - Iurreta • www.zarateylexpe.com

HONDA

STIHL

pasquali

SAME

BCS

CARON

VIKING

JUAN BERISTAIN
NEKAZAL TRESNAK

Salmenta eta konponketa

Urte askotarako!

Oidor Berriozabalbeitia, 14 • 48230 Elorrio (Bizkaia)
Tel-Faxa: 94 623 18 03



Sarean, Durangaldeko astekariaren www.anboto.org webgunean, [youtube](http://youtube.com)-ko Anbotoren kanalean eta www.vimeo.com webgunean Bideografik akoiatetxearen atalean dago bideoa ikusgai. Hamaika telebistaren bidez ere zabalduko dugu, gainera, Anbotoren lehenengo hamarkada ospatzeko osatu dugun bideoa.

Hamaika telebistaren bidez ere zabalduko dugu hamarkada ospatzeko bideoa

Arrazolako oinezkoen bidean, Anbotoren magalean hasita Durangalde osoan zehar

Eskualdean herrigintzan, politikagintzan, kulturagintzan zein kirol arloan jarduten dutenenak izaten dira Anboton agertzen diren aurpegiak. Salbuespena da hamargarren urteurrenerako osatu dugun bideo honetan moduan langileok izatea irudia: Durangaldeko herritarrei ahotsa ematea da eta astekari honen helburua.

Herririk herri, plaza, kirolgune eta kulturaguneetan zehar burutu dugu, orain hamar urtetik hona

legez, Anbotoko publizista, administrari, maketatzailer, zuzentzailer, argazkilar eta kazetariok bideoko ibilbidea.

Anboto mendiaren magaleko Atxondoko Arrazola auzoko oinezkoendako bidean hasita, erritmo bizian zeharkatzen ditugu, Durango, Berriz, Elorrio, Iurreta, Otxandio, Abadiño, Zaldibar, Mallabia, Izurtza, Garai, Mañaria eta Boluetan aldizkaria inprimatzen dugun errotatiba.

Hamabi herrietako berri argazki, bideo eta berbaz helarazteko burutzen dugu astero-astero Anboton bidea: Anbotoren alea oso-osorik zuen etxeetako buzoietan barikuro izan dezazuen, egunero egiten dugu lan.

Bideoan, minutu bateko ibilaldiaren ondoren, urte askoan gugaz Anboton gora jarraitzeko gonbita egiten dizuegu guztioi.

Aurrerantzean ere gugaz Anboton gora jarraitzeko gonbita egiten dizuegu guztioi

Herririk herri, plaza, kirolgune, eta kulturaguneetan zehar burutu dugu grabazioa



Durangaldearen ikuspegiarik osoena

anboto.org

GAER DESINFEKZIOAK

Mota guztietako intsektuak eta arratoiak hiltzen ditugu:
LABEZOMORROAK, INURRIAK, JANTZISITSAK, ARRATOIAK, ARKAKUSOAK, ERLEAK...

Iturriza, 42 - 2 ezk. - Tf./Faxa: 94 622 57 74 / 658 75 72 79 - 48240 BERRIZ

Aurrera Anboto!

CENTRAL FORESTAL

Baserritarren eta Euskal Herriko basoen zerbitzura

Etxebarrieta auzoa - 48200 IURRETA
Tel.: 94 620 51 87 - Faxa: 94 620 51 94

Urte askotarako!

Anbotok pausoz pauso



Itziar eta Miren administrazioan eta banaketan



Goretti eta Amaia publizistak bezeroekin hartu-emanetan



Joseba, Itsaso, Amaia, Markel eta Jone asteko gaiak lantzen erredakzioan



Ainhoa maketazio lanetan



Igor testuak zuzentzen eta orrazten



Miren gurditxoagaz, postetxera bidean

**Anbotok
zure etxean**



HERRIRIK HERRI >

DIURRETA

Bazkari ekologikoa egingo dute Iturburuko ortuetako lagunek

Ortu ludikoetako partaideek produktu ekologikoekin egindako bazkaria edukiko dute zapatu honetan

Produktu kimiko barik hazi dituzte Iurretako ortu ludikoetan piperrak, kalabazak, tomateak... Ramon Zearreta barazteetako monitorearen esanetan, "modu osasuntsuan ekoizti litekeela demostratu dugu". Ikasturte amaierako sari legez, bazkari ekologiko baten bueltan batuko dira zapatuan.

Ortuen alboan, Betizu jate-txan izango da bazkari ekologikoa. Igor Solaguren sukaldariak adierazi duenez, menu konpletoa edukiko dute, menestragaz, okelagaz eta mermeladetatik ateratako pos-

treagaz. Zearretak nabarmendu du bazkaria merkea izango dela, nahiz eta produktu ekologikoak garestiak direla zabaldua dagoen: "Egia da hori ere; produkzioan denbora gehiago behar dute barazkiek, eta txikiagoak izaten dira". Zaporean, ordea, alde handia dagoela nabarmendu du: "Lehenengo zaporetara bueltatzea da".

Ramon Zearreta: "Iurretan modu osasuntsuan ekoiztu daitekeela demostratu dugu"



Ortuetan edade guztietako jendea ibiltzen da beharrean.

Erabiltzaileen esperientzia

Gaztetan ortuan ibilitakoak, sekula baratzik zapaldu ez duten gazteak... denetik dago ortu ludikoetan. Begotxu Lauzirikak, esaterako, orain baserriarren lana gehiago baloratzen duela esan du: "Ez dugu euren esfortzua baloratzen".

Daniel Lopezek 25 urtean izan du baratza, eta oraingo barazkiek "zapore gozoagoa" dutela dio. Bera baino gutxiago dakitenek galderak egiten dizkiote, eta ahal denean laguntzea gustatzen zaiola dio. Ortuetan sortzen den giroa nabarmendu du Kristina Jimenezek:

"Gozada bat da dakien jendea garendandik ikastea". Ortuen azpiegiturak beharra erraztu egiten die la adierazi du. Laster umea edukituzkotan da Jimenez, eta familiak ortuan asko lagundu diola esan du: "Lana da, baina emaitzek konpen-tsatu egiten dute". ■ A.U.

Zergak eta tasak igoko dituzte zerbitzuei eusteko

Urte bian zergak eta tasak izoztu ondoren, 2012rako %2,5eko igoera lineala erabaki dute

Zergetan eta tasetan %2,5eko igoera lineala ezarriko dute Iurretan. EAJren proposamen horri PSE-EEren hiru zuzenketak eta Bilduk aurkeztutako lautik bat gehitzea onartu dute. Bilduk kontra egin du.

Iñaki Totorikaguena alkatearen berbetan, "diru-kutxan aintzat hartzeko murrizketa" eragin du azken urte bian zergak eta tasak izoztu izanak, eta 2012rako proposamenak "zerbitzuak mantentzea eta batutakoa banatzen ahalgintzea" du helburu.

Sozialistek ondo hartu dute igoera, "momenturik onena" ez dela onartu arren, baina zaborra eta estolderiagaz lotutako tasetan %5eko hobaria proposatu dute, lanbide arteko gutxieneko soldatara heltzen ez direnentzat. Terrazak, mahaiak eta aulkiak... jartzeko lur publikoa erabiltzegaikitiko

EAJk azaldu duenez, zerbitzuak mantentzea eta batutakoa banatzea da udalaren helburua

tasa izoztea ere proposatu dute. PSE-EEK eta EAJk egin dute alde; Bildu abstenitu egin da.

Ez dute onartu Bilduk proposatutako zerga eta taseen "igoera progresiboa": familiakide eta premien arabera taula mailakatu

EAJren proposamenari sozialisten hiru zuzenketa eta Bilduren bat gehitu dizkiote

proposatu dute, ehuneko zehatz batzuen arabera beherapenak batuz. Hori praktikan jartzea "ia ezineko" jo dute sozialistek: "Beharrezkoa da maximo eta minimoak zehaztea. Gainera, %5eko hobaria diskriminazioa txikiagotu egiten du". Totorikaguena berbetan, berriz, "izan daiteke ideal horretara inoiz heltzea, baina azterketa konplexuagoa behar du".

Bilduren zuzenketa bat bakarrik jaso dute: ibilgailuen gaineko tasa %5 igozteko 16-19 zaldi-endar fiskaldunetan, eta %10, berriz, 20tik gorako kasuan. ■ A.B.

DIURANGO

Afrika hurretik ezagutzeko aukera Udal Liburutegian

Helburua Durangon bizi diren etorkinen jatorrizko herrialdearen errealitatea ezagutzera ematea da

Durango Udal Liburutegiak Inmigratio Sailagaz batera, *Afrika Durangon* ekimena antolatu du azaroaren 14tik 22ra. ACNUR Euskal Batzorde, Hauralde Fundazio, Fundeso eta Durango afrikar elkarteekin elkarlanean aritu dira.

Ekimen guztiak Udal Liburutegian izango dira. Azaroaren 15ean eta 16an, 19:00etan, *Asmara* eta *Herionas sin nombre* eta *Adios Bafana* film laburrak eskainiko dituzte. Azaroaren 17an, 19:00etan, *Sexu eta ugalketa osasuna* hitzaldia emango du Hau-

rralde Fundazioko Patricia Poncek. Hilaren 18an, Boni Ofogo kamerundarrak ipuin kontaketa saioak egingo ditu; 17:00etan haurrentzako eta 20:00etan nagusientzako.

Azaroaren 22an, 19:00etan, Celine Clemente (Kamerun) eta Agnes Agboton (Benin) afrikar idazleekin solasteko aukera egongo da; Josune Muñozek sarrera hitzaldia eskainiko du. Amaitzeko, azaroaren 14tik 22ra *Dardurereko emakumeak* erakusketa egongo da ikusgai. ■ J.D.



Askotariko ekintzak prestatu dituzte hainbat elkarteren artean.

Joxe Arregik hitzaldia eskainiko du barikuan

Tabira Txiki eta Durangaldeko HOAC taldeek antolatuta, Joxe Arregik berbaldia eskainiko du barikuan, arratsaldeko 20:00etan, Durango Elkartegian. Arregi Frantziskotar fraidea eta teologian doktorea da, eta *Jesusen barri ona XXI. menderako* gaiari buruz jardungo du berbetan; bere azken liburua aurkezteko aukera ere izango du.

Elkartegian 'Jesusen barri ona XXI. menderako' berbaldia eskainiko du

Arregi azkenaldian ezaguna egin da, Munilla Gipuzkoako gotzainagaz izan dituen gorabeherengatik, baina lehenago ere lan isila egindakoa da. Besteak beste, hainbat liburu idatzi ditu: *Jainkoaz galdezka. 40 euskal idazle-erantzunak, Jainkorik bai ala ez?, Oinatzak bidean. Erligioen historia...* Pariseko Institutu Katolikoan Teologian lizentziatu eta doktoratu zen, eta Gasteizko eta Deustuko Teologia Fakultateetan irakasten du. Horrez gain, *Hemen* erlijio-aldizkariaren sortzailea eta zuzendaria da. ■ J.D.

BERRIZ



Zabortegiko lanak eguraldiaren arabera luzatu daitezke.

Berrizburuko zabortegia zigilatze lanetan dabilta

Lan horien atzerapenak kirol gunearen garapena baldintzatu du gaur arte

Berrizburuko kirol gunea eraikitze proiektua mar-txa berria hartzekotan dela esan daiteke. Bertan zegoen zabortegia zigilatze prozesua hilabeteak atzeratu da, Eusko Jaurlaritzak Garbikerri eman beharreko baimena denboran luzatu delako. Orain, lanak hasita, eguraldiak zerikusia izan dezakeelako ere atzerapena ekar dezake, baina amaitzen dutenean egitasmoa guztiz osatzeko aukera edukiko dute.

Zigilatze zazpi pausoko prozesua da, eta derrigorra da egu-

Zigilatze zazpi pausoko prozesua da, eta derrigorra da eguraldi sikua egitea

Nagusientzako ariketa fisikoen zirkuitua eta herri-kirol parkea egingo dituzte gerora

raldi sikua egitea, arduradunek azaldu dutenez. Euria eginez gero, bi-hiru egunetan guztia gelditzen da. Berez, hilabeteko lana ei da.

Oraingoz, kirol-gunean frontoiak eta kirol anitzetarako zelaia egin dituzte, zabortegiko azalera-tik kanpora daudelako. Zigilatze amaitzean, nagusientzako ariketa fisikoen zirkuitua eta herri-kirol parkea eraikitzeari ekingo diote. Urbanizazioa ere landuko dute gerora, besteak beste. Ez dago proiektua amaitzeko datarik aurreikusita. ■ M. Onaindia.

Begirale, zaintzaile eta irakasleen lan-poltsak

2011-2012 ikasturterako eskaintza da udalarena

Berrizko Udalak begirale, zaintzaile eta irakasle euskaldunen lan-poltsak osatu gura ditu 2011-2012 ikasturtera begira. Horretarako, interesdunei izena-emateko deia egin die. Aisialdiaren arloan jarduteko eta begirale izateko asmoa dutenei zuzenduta dago, adibi-

Eskabide-orria bete behar dute interesdunek, udaletxean jasota edo webgunetik jaitzita

dez, eskaintza; irakasle izan gura dutenei eta eskolan arazoak dituzten gazteei laguntzea gustuko dutenei ere egin diete deia, eta ume zein nagusien zaintzan jardun gura dutenek ere badute aukera apuntatzeko, baita kirolzale izan eta horretan monitore izatea helburu dutenek ere.

Eskabide-orria
Interesa dutenek eskabide-orria bete behar dute, udaletxean jasota edo webgunetik jaitzita. Informazio gehiago gura duenak ere bide bera erabili dezake. ■ M.O.

Argindar kablea lapurtu dute belodromoan

Duela aste bi egin zuten lapurretan, eta kable berria jartzea 3.500 euro kostatuko da, gutxienez

Berrizko belodromoan farolak argindar barik daude, duela 15 egunen bueltan kablea lapurtu eta gero. Amankomunazgoak kudeatzen du belodromoa, eta Oskar Zarrabeitia presidentea azaldu du joan zen egunean ohartu zirela lapurretaz; iluntzeko entrenamendura joan zirenek ezin izan zuten argirik erabili.

Bulegotik faroletarainoko instalazioan pairatu dute lapur-ta. Lurpetik doaz kableak, eta lurreko kutxatila altxatuta lortu zuten lapurrek kablea bereganat-

tzea. Berria ipintzea 3.500 euro kostatuko ei da, gutxienez, Zarrabeitiaren esanetan.

Sistema berria

Ez da belodromoan lapurtzen duten lehenengo aldia: 2010eko irailean ere gertatu zen. Hori dela-eta, Zarrabeitiak dio neurriak hartu eta sistema berria aztertzen dihardutela, "berriz ez gertatzeko". Dioenez, "beste leku batzuetan legez", kutxatila soldatzea edo hormigoia botatzea dira, besteak beste, aukerak. ■ M.O.

ATXONDO

Saihesbiderako seinale berriak eskatu dituzte

Kamioi batzuek herri barrura sartzen jarraitzen dute; batez ere, Elorrio aldetik datozenek

Duela urtebete zabaldu zuten kamioiak Fuchosara herri erditik ez pasatzeko saihesbidea, baina oraingoz kamioi batzuk herri barrura sartzen dira. Hori dela-eta, seinale berriak eskatu ditu Atxondoko Udalak, batez ere, Elorrio aldetik datozen kamioiek saihesbidea erabili dezaten.

Saihesbidearen bidez, kamioiek Fuchosara joan-etorria bertatik egitea gura zuen udalak. Horregatik, kamioien arazo-gatik eta herri barruko trafikoa

lasaitzeko, Euskal Herria kalearen noranzkoa aldatu zuten. Hala ere, kamioiak lantzean behin Euskal Herria kalean gora sartu guran ibiltzen dira.

Agenda 21eko azken batzarraren landu dute gaia, eta udal arduradunek seinale berrien zain daudela adierazi dute. Herritarrek Agenda 21eko foroan azaldu dutenez, hainbat kamioi ikusi dituzte herrian galduta, eta horietako batzuk Arrazolaraino ere heldu izan dira. ■ A.U.



2010eko azaroan amaitu zuten Fuchosarako saihesbidea.

BANDERARI OMENALDI HERRIKOIA



AZAROAK 11

18:30etik aurrera, dantzari plazan TXISTORRA JANA eta lurretako hainbat ospakizunen BIDEO EMANALDIA egongo da, TRIKITIXAZ ALAITURIK.

AZAROAK 12

18:30etik aurrera lurretako plazan OMENALDIA egingo zaio IURRETAKO BANDERARI. (euria eginez gero frontoian)

Ondoren 20:30 inguruan AFARI HERRIKOIA egingo da Afariaren ondoren ERROMERIA egongo da frontoian TITAU taldearekin.





IURRETA
1911 - 2011



ELORRIO

Auzoetako garraio zerbitzua probako epean ipiniko du martxan udalak

Auzotik herrigunerako taxiak euro bi balioko du; taxilariekin hitzarmena sinatuko du udalak

Elorrioko Udalak auzoetako garraio zerbitzua jarriko du martxan datozen egunotan, auzoak herrigunegaz lotzeko helburuagaz, eta taxia erabiltzeko erraztasunak ekarriko dizkie bizi-lagunei. *Eskaripeko garraioa* izenagaz, zerbitzua era esperimentalean hasiko dela iragarri dute ordezkariak, herritarren harrera ezagutzeko eta behin betiko ezarzen duten ala ez erabakitzeko.

“Herrigunetik urrun bizi diren herritarrek, ibilgailu propioz eduzkitzeagatik euren bizi-kalita-

tea murriztuta ez ikustea gura dugu”, adierazi du Ana Otadui Elorrioko alkateak.

Udalak, Iurretan orain dela urte bi inguru zabalduko *Taxi-auzunea* zerbitzua hartu du erabiltzeko, zehaztu dutenez. Herriko taxilariekin hitzarmena sinatuko du, “eurak izango baitira herritarrei zerbitzua eskaintzeaz arduratuko direnak”. Hitzarmen horretan, prezioak eta funtzionamendu baldintzak adostuko dituzte, azaldu dutenez.

Erabiltzaile txartela

Zerbitzua erabili gura dutenek, udalak emandako erabiltzaile txartela jaso beharko dute lehenengo. Zerbitzua erabiltzeko momentuan, herriko taxi bati telefonoz deitu eta

Iurretan orain dela urte bi inguru martxan ipini zuten ‘Taxi-Auzunea’ dute eredu



Auzoak herrigunegaz lotzea dute helburu ekimen honeguz.

bidaia bakoitzeko euro bi ordaindu beharko dio erabiltzaileak taxilariari. Udalak erabiltzaileak ordaintzen dituen bi euroen eta zerbitzuaren prezio errealearen arteko diferentzia ordainduko dio taxilariari, ordezkariaren berbetan.

Erabili gura dutenek, udalak emandako erabiltzaile txartela jaso beharko dute lehenengo

Azaldu dutenez, zerbitzua behin betiko ezarriko balute, aste-gunetan 07:30etik 20:00etara funtzionatuko luke; zapatuetan, 09:00etatik 14:00ak arte. Domekatan ez litzateke martxan egongo; ezta abuztuan ere. ■ M. Onaindia.

Margo lehiaketak kaleak hartuko ditu zapatuan

Iturrizoro elkarteak antolatu du ekimena aurten ere, udalaren eta Euskadiko Kutzaren laguntzagaz



lazko edizioako parte-hartzaileetako bat, lanean.

XXII. Errebonbillo Margo Lehiaketa ospatuko dute zapatuan Elorrioko kaleetan. Iturrizoro elkarteak udalaren eta Euskadiko Kutzaren laguntzagaz antolatutako lau haitzarako ekimenak margolariak kalera ekarriko ditu, herriak itxura berezia hartuz. Bertan ondoko dituzte euren sormen-lanak, herriko paisaia bat oinarri hartuta.

Lehiaketa goizeko 10:00etan hasiko da, eta 14:30erako amaitu beharko dute lana

Lehiaketa goizeko 10:00etan hasiko da. Lehenago, 9:00etatik aurrera, eman beharko dute izena Iturri kultur etxean, eta bertan oihalak eta papera zigilatuko dituzte. Eguerdiko 14:30erako amaituta eduki beharko dute. 600, 400 eta 300 euroko sariak prestatu dituzte; artista elorriar onenak 150 euro poltsikoratuko ditu. ■ M.O.

‘24 ordu digitalean’, Elorrio film laburren sorgune bihurtzeko

Bariketik zapatura bitartean prestatuko dituzte lanak, eta zapatu gauean ikusgai ipiniko dituzte

Arriola kultur aretoak eratzten duen film laburren ‘24 ordu digitalean’ lehiaketaren seigarren edizioa barikuan hasiko da, arratsaldeko 17:00etan. Antolatzaileek ordu horretan emango dute aurtengo gaia, eta 24 orduko epean aurkeztu beharko dituzte lanak

Antolatzaileek arratsaldeko 17:00etan emango dute aurtengo gaiaren berri

parte-hartzaileek. Lan-taldea osatzeko partaideak aurretik zehaztea proposatu dute antolatzaileek; baita modulu tekniko eta artistikoen arteko lankidetzaren ere.

Sormen-lanak MiniDV formatuan entregatzea eskatu dute, eta proiektzioa zapatuan bertan egingo dute, gaueko 22:00etan. Amaitzean, botoak zenbatu eta sariak banatuko dituzte. Irabazleek 700 euro jasoko dituzte; 500 euro emango dizkiete bigarren, hirugarren eta laugarren sailkatuei. ■ M.O.

URTXINTXA
HEZIKETA JOSTAILUAK-ESKULANAK
Aurrera Anboto!
Andra Mari kalea, 9 DURANGO Tel.: 94 681 50 17

katerin ardoak
iñaki uribe
Zorionak Anboto!
saltsan
KURUTZIAGA 40 48200 DURANGO T/F 946 200 427 saltsan.com

Celeste
Jantziak
- Egunean bertan konpontzen ditugu azpitak, gerrilak, kremalerak, botziak...
- Goitinak eta etxeko arropak...
Askatasun etorbidea 10 behea
48200 Durango
Tel. 94 407 17 23
confeccionescelste@hotmail.es

goizeko 08:00etatik gaueko 21:00etara zabalik
clínica dental hartzklinika
b. unamunzaga e. etxebarria
Urte askotarako!
{ odontologia orokorra eta espezialitateak }
muruetorre 2. blokea C behea - 48200 Durango - 94 681 99 51

BODEGUILLA
Traña-Matierna Aurrera Anboto!
Tel.: 94 681 43 85



AUKERAKO AUTOREN BAT INTERESATZEN
BAZAIZU, KONFIANTZAZKO BESTE TAILER
BATERA ERE ERAMAN ZENEZAKE ONDO
AZTERTZERA NAHI IZANEZ GERO.

*Andoni
esana*

Andoni Baños,
Gaurako Aukerako
Ibilgailuen Arduraduna



**RENAULT KANGOO
COMBI AUTHENTIQUE**

1.5 dCi 85zp. 2009 urtea.

9.600€

Zorionak Anboto!

**RENAULT
OCASIÓN**

ZUK DENA NAHI DUZULAKO.

PSP transferentzi gastuak barne. 11/11/30a arte edo izakinak amaitu arte balio duen eskaintza.
Erakutsitako eta eskainitako bertsioak desberdinak izan daitezke.



GAURSA AUTOAK

ARRIANDI 12. TEL. 94 620 33 00. IURRETA. GRAN VÍA 65. TEL. 94 441 74 50. BILBAO. www.gaursaautoak.com

ABADIÑO

Gerediagako auzokideak kexu, "inkomunikatuta" egon direlako

Lurpeko pasabidea erabili ezinda, foru errepidea gurutzatu behar izan dute

Gerediagako auzokideek obren eraginaren inguruan hainbat salaketa plazaratu dute. Auzora heltzeko lur gaineko pasabide berria orain aste bi zabaldu zuten, auzokideek

Autobus geltokiaren ondoko lurpeko pasabidea lokaztuta egon da egun askoan

Traña-Matienagazko lotura bide horretatik eginez. Autobus geltokiaren ondoko lurpeko pasabidea da orain auzokideen kezka. Izan ere, pasabide hori autobus geltokira eta atzeko bi eraikinetarajoa-



Lurpeko pasabidea lokatzez beteta dagoela-eta, kexu dira auzokideak.

teko sarbide moduan utzi dute. "Behin-behinean foru errepidea gurutzatzeko jarri zuten zebra-bidea kendu egin dute, eta lurpeko pasabidea egoera txarrean lokatzez beteta egon da egun askoan", salatu dute. Errepidea gurutzatzeko dakarren arriskuaz ere ohartarazi dute: "Kotxeak hemendik doazen abiaduran zebra-bide barik gurutzatzea arrikutsua da, eta ez digute berehalako konponbiderik eman". Gainera, pasabide horretatik jende ugari igarotzen dela gogoratu dute: "Jose Charolako etxebizitzaz gainera, autobus geltokia eta beste hainbat zerbizutarako sarbidea ere bada".

"Kotxeak hemendik doazen abiaduran zebra-bide barik gurutzatzea arrikutsua da"

Udalagaz sarritan berba egin dutela azaldu dute auzokideek, baina ez dutela konponbiderik topatu: "Alkateari sarri adierazi diogu gure kexa, baina ez du arazoa konpondu".

Inguruan egin dituzten obrek, Gerediagakoek diotenez, "lurpeko pasabidea ezinduendako eta gurgildun aulkidunak pasatzeko ez egokitu izana ulergaitza egiten zaie. Asteburuko euriteak obretako hondakinak pasabideraino eramandu ditu. ■ J. Guenetxea

Hitzarmena sinatu dute udalak eta eraikitzaileak

Joan zen astean batzartu ziren Traña-Matienako Pierburg enpresaren ondoko lurretan etxebizitzak eraikiko dituen enpresa eraikitzailea eta udala. Eremu horretan, babeseko eta prezio tasatuko hogeina etxebizitza eta salmenta libreko 45 eraikitzea jasotzen du proiektuak.

Asteon, sinatutako hitzarmenaren etxebizitzak eraikitzeko zehaztu dituzten epeei buruz galdetu diogu Jose Luis Navarro alkateari: eperik ez dutela hitzartu erantzun digu; azaldu duenez, "finantziarioaren eta eskariaren arabera" joango dira hori lotzen.

Babeseko etxebizitzak, prezio tasatukoak eta libreak Pierburg enpresaren ondoan

Joan zen asteko batzar horretan, orain arte zehaztu dituzten proiektuaren baldintzak lotu zituzten, alkatearen berbetan, eta, "promotoreak etxebizitzotako lonjak udalari zer baldintzatan lagako dizkion jaso". ■ I.E.

MALLABIA

Idi proben Bizkaiko Txapelketako finala jokatu dute zapatuan

El Corte Inglés saria 17:00etan eta 22:00etan izango da

Idi proben Bizkaiko Txapelketako finala, XXXVI. El Corte Inglés Saria, probalekuan jokatu dute zapatuan. Hitzordu bi ipini dituzte, arratsaldeko 17:00etan eta gaueko 22:00etan. Antolatzaileek azaldu dutenez, "atera litezkeen etekinak gizarte, ongintza, kirol edo kultura arloko lanetarako izango dira".

Seitik baterako puntuak batu-ta, Bizkaiko hamazazpi probalekutan lortutako sailkapenaren arabera, urtarrilean Berrizen hasi eta aza-

roan Gernikan amaituta, Ecomet, Txomin Renteria, J. Luis Biritxina-ga, Mendipe eta Mikel San Pelayo izango dira finalean parte hartuko dutenak. Proba Bizkaiko Herri Kirol Elkarteak antolatu eta kontrolatuko du, Leioako antolatzaileen laguntzagaz. ■ J.G.

Bizkaiko hamazazpi probalekutan egin dituzte sailkapen probak



Aurten Mallabian jokatu dute finala.

Domekan Oizen elkartzeko deia egin du M15 mugimenduak

Benetako Demokrazia Orain mugimenduak domekan Bizkaiko Deiar Mendietan batzeko deia egin du, eta horregaz bat eginek, Durangaldeko M15 mugimenduak Oizera igotzea proposatu du. Trabakua mendatean ipini dute hitzordua, goizeko 10:45ean.

Trabakua ipini dute elkartzeko hitzordua domekan, goizeko 10:45ean

"Herriek euren etorkizuna erabakitze eskubidea defendatuko" dute

"Elkartzeko eta eragiten zieten gaien inguruan erabakitze deia egiten zieten mendi-tatik gure arabasok bizkaitarrei; dei hori egiteko beharra dugu gaur egun ere", diote antolatzaileek. Ganeko, Sollube, Koltza, Gorbea eta Oizetik aldarrikapen bana jaurtiko dute; Oizen, "herri guztiek euren etorkizuna erabakitze duten eskubidea" defendatuko dute, adierazi dutenez. "Zarata handia" egiteko tresnak eroatera animatu dute, "Bizkaia esnatu dadin". ■ M.O.

OTXANDIO

Durangaldeko Gazte Topaketak egingo dituzte asteburuan

Barikutik domekara, Durangaldeko Gazte Topaketak hartuko ditu Otxandio. Azaroaren 11n, 18:00etan, *Nola pentsatzen dugu gazteok?* hitzaldia eskainiko dute harrera ekitaldiaren barruan. Ondoren, 21:00ak aldera, luntxa prestatu dute, eta 22:00etan Hamaika Bertute ekimeneko bertsolari gazteek bertso saioa eskainiko dute.

Zapatuan asanbladan batu-tako dira 10:30ean; segidan, lan taldeak prestatuko dituzte demokrazia parte-hartzaileari eta auzolan eta komunitateari buruz berba egiteko. 14:00etako bazkariagaz indarberri ondoren, 16:30ean tailerrak egongo dira. Eguna errematatuko, 22:00etan, gaubela egingo dute.

Autogestiori buruz
Domekan azkeneko batzar irekia egingo dute, 10:00etan, eta 11:00etan *Autogestioa* izeneko hitzaldia eskainiko dute. Bazkari baten bueltan agurtuko dute Durangaldeko Gazte Topaketen aurtengo aldia. ■ J.D.

Zapatuan auzolanari eta demokrazia parte-hartzaileari buruz eztabaidatuko dute

GARAI

Zaborraren zerga %10 igoko du udalak 2012an

Martitzenean onartu zituen udalak 2012rako udal ordenantza fiskalak. Hirugarren eta seigarren ordenantzak bakarrik moldatu dituzte, baina hainbat zerga eta tasa igo egingo dituzte.

Zaborra batzeagatik zergan egingo dute du igoserarik handiena: %10eko. Urarena %3 igoko dute, eta gainerako igorak %2an kokatuko dituzte; ibilgailuena, kasurako. Edozelan ere, beste batzuk mantendu egingo dituzte; ondasun higiezin gainerako zerga, adibidez.

Urarena %3 igoko dute, eta gainerako igorak %2,5ean kokatu dituzte

Tasetan, hilerriko lurperatzea 100 eurora eta ateratzea 200era altxatu dituzte 70etik; frontoikoa eta ezkontzetakoa prezioa berean geldituko dira.

Gaztainerrea zapatuan
Bestalde, zapatuan ohiturazko gaztainerrea antolatuko du Trumoitte kultur elkarteak. Arratsaldeko 17:00etan umeentzako jolasak prestatuko dituzte, eta gaztainera-jana 18:00ak bueltan hasiko da, azaldu dutenez. Frontoian ospatuko dute jaia. ■ M.O.

Durungaldean labor

Egaña eta Lipus ikusteko sarrerak salgai Otxandion

Andoni Egaña *Erregea* eta Ander Lipus *Bufoia* Otxandion izango dira azaroaren 18an izen bera duen ikuskizunagaz. Unai Elizasu gai jartzailea izango du gidari antzerkia eta bertsoa uztartzen dituen ikuskizunak. Sarrerak tabernetan salgai daude dagoeneko. Emanaldia Bolalekuan izango da, 20:30ean hasita. Euskara Batzordeak eta Otxandioko Gazte Asanbladak antolatu dute ekimena.

Gazteentzako ekintza alternatiboak gauetan

Hainbat erakunde, elkarte eta eragilek *NA.IT* ekimena antolatu dute, 16 eta 35 urteko gazteei gauetarako egitarau alternatibo eskaintzeko. Ostiralean Pinondo Etxean film laburren lehiaketaren sari banaketa eta barreterapia saioa prestatu dituzte. Larunbatean, Andra Mariko aterpean, M'LOMP Khuzayma elkarteek saioa eskainiko dute.

EHeren deia zapatuko kalejiran batzeko

Durangoko Euskal Herrian Euskarazek kalejira koloretsua burutuko du Andra Maritik abiatuta, larunbatean 12:30ean, *Ezabatu eta euskaraz bizi* ekimen nazionalaren barruan. Ondoren, mural bat ere margotuko dute, eta luntxa egongo da bertaratzen direnentzako.

Alex Txikon Zaldibarko liburutegian, 15ean

Alex Txikon mendizale lemoarrak hitzaldia eskainiko du Zaldibarren. *Gailurra non, euskara han* izenburupean mendizaletasuna eta euskara uztartuko ditu azaroaren 15eko martitzenean, 18:00etan, Zaldibarko liburutegizaharrean. Udaleko Euskara Sailak antolatu du berbaldia.

ZALDIBAR

Txakurren abilezia ikusgai, asteburuan, Agility Txapelketan

Iurretako taldea izango da Bizkaiko ordezkari bakarra; aurrean sailkatzea izango dute helburu

Estatu mailako proba puntuagarri bat hartuko du Zaldibarrek asteburuan, eta bertan izango da parte hartzen Agility Iurreta taldea. Zapatu arratsaldean eta domeka goizean garatuko da proba, Olazarren. 20 txakurren bueltan ibiliko dira bere gai-

poak topatuko dituzte probetan, ahalik eta denbora txikienean. Hurreratzen direnentzako erakustaldia egingo dute.

Iurretako taldeak -Bizkaiko ordezkari bakarra izango da- lau edo bost txakur eroango ditu txapelketara, emaitza onekin jarraitzeko asmoz.

Zapatu arratsaldean eta domeka goizean garatuko da proba, Olazarren

tasunak erakusten, euren jabe eta gidariaren aginduetara. Txakurrek hesiak, tunelak eta antzeko ozto-

Txapelak jantzi berritan

Izan ere, bolada onean dago taldea. Joan zen astean, esaterako, Espainiako Kopa jokatu zen Giroman, eta podiuma iurretarek osatu zuten; txapela Axular Casado eta Arin txakurrak jantzi zuten. Pozik azaldu zaigu Casado, erregionala eta



Hainbat proba gainditu beharko dituzte txakurrek Olazarren. Agility Iurreta

estatu mailako ligetan ere taldea lehenengo geratu dela azpimarratuz. Beraz, asteburuan bolada onari eustea dute helburu, baina "akats txiki batek emaitza osoa baldintzatu" dezakeela jakinda, Casadok

Iurretako taldeak lau edo bost txakur eroango ditu asteburuko txapelketara

dioenez. 10 urte daramatza Zaldibarren bizi den durangarrak txakurrekin lanean, eta sari ugari irabazi ditu. Taldea ere, gazteagoa izan arren, erreferentzia da dagoeneko mundu horretan. ■ M. Onaindia

MAÑARIA

Udal gobernuak UEMAn sartzea proposatuko du

Gaur iluntzeko plenoan eztabaidatuko dute gaia

Herritarren %70etik gora euskaldunak diren herriak batzen dituen UEMA elkartearen sartzea proposatuko du, azaroaren 11n 19:00etatik aurrera burutuko duten udalbatzarrean, Bilduko gobernu taldeak. Elkartearen estatutuak aurkeztuko dituzte udalbatzarrean,

UEMA elkartearen estatutuak aurkeztuko ditu Bilduko udal gobernuak bozkara

hala badagokio, Mañariko Udalak UEMA elkartearen helburuak bere egin ditzan.

Lehenago, Durungaldean, Atxondo, Izurtza, Mallabia eta Otxandioko udalek eman dute Udalerri Euskaldunen Mankomunitatean sartzeko pausoa.

Besteak beste, "udalerrri euskaldun guztiek bat eginik, euskara nagusi izango den lur-gunea osatzea" jasotzen du UEMAK helburu nagusizat, eta elkartearen batutako herrion "garapen sozio-ekonomikoa eta soziokulturala bultzatzea". ■ I.E.

IZURTZA

Beste eskari bat aurkeztu du udalak trafiko zuzendaritzan

Abuztuan aurkeztu zuen udalak Eusko Jaurlaritzaren trafiko zuzendaritzan eskaria herria gurutzatzen duen BI-623 errepidetik igarotzen diren autoen abiadura geldotzeko neurriak hartu ditzaten eskatuz, alkatearen sinaduragaz. Bilduko Ballarín alkateak azaldu

digunez, "hilabete baino gehiago da eskaria aurkeztu genuela, eta ez dugu ezelako erantzunik jaso, eta azaroaren 28ko datagaz beste idatzi bat bidali dugu trafiko zuzendaritzara".

Idatzi horretan, besteak beste, "orain denbora bat burutzen hasi zirenean eta azkenaldian gutxiagotan egin dituzten abiadura kontrolak mantendu edo maiztasun handiagoz egin ditzatela" eskatu dio Izurtzako Udalak Trafiko Zuzendaritzari. Bestetik, "abiadura radar finkoak ipini ditzatela" ere eskatu du udalak. ■ I.E.

GALLASTEGI

gallastegiharategiak@euskalnet.net

1955 ean sortua

10 urte eta hain gazte!

Zalduasolo, 8
946 827 038
48250 ZALDIBAR



Baimendutako harategia
Euskal Okela
Carnicería autorizada

Antso Estegiz, 1
946 812 247
48200 DURANGO

NACEX

Zorionak Anboto!

San Roke, 12 behea (48200 DURANGO)
Tel.: 94 620 01 62
Mug.: 666 444 101

4810.operativa@nacex.es
www.nacex.es

Informazio orokorra: 900 100 000

BERBAZ >

“Asteburu gauetarako alternatibak eskaini gura ditugu; helburua ez dadila izan edatea”

NA.IT Noche Alternatiba - Ilargiarekin Topa ekimena antolatu du astebururako, Durangon, Zeozer elkarteak



Maria Goyena Urien •

- Zeozer elkarteko kidea
- NA.IT ekimena antolatu dute asteburu honetarako

“Film laburren lehiaketan jendeari gaua zelan ikusten duen galdetu diogu”

Asteburuko ekitaldian film labur lehiaketa bateko sariak banatu-ko dituzue. Gaia ‘Gaua sortua, guztia nahastua’ da.

Jardunaldi bakoitzean gai bat ipintzea pentsatu dugu, eta oraingoan, katuagaz eta erdarazko “por la noche todos los gatos son pardos” esaeragaz jokatu dugu. Uste dugu gauetan dena ikusten dela polita, jende guztia dela jatorra... eta gai hori ipini dugu galdetzeko gaua jendearentzat zer den. Zer egiteko den, edo bakoitzak zer ikusten duen gertatzen dela gauetan.

NA.IT barruan barreterapia saioa antolatu duzue.

Barre egiteko aukera izango da; hori ere apur bat galdu dela pentsatzen dugu. “Barre egiteko edan egin behar dut?”. Ez, modu osasuntsuan ere ondo pasatu daiteke.

Asteburuko jaialdia pasatuta, zer asmo daukazue?

Gauerako alternatibak proposatzeko progama osoagoa prestatuta daukagu, eta gus-tatuko litzaiguke aurrerago beste ekitaldi batzuk egitea, esaterako, kiroldegia eta liburutegia gauez zabal-tzea... Beste elkarteekin elkarlanean ere jarraituko dugu boluntariotza bultzat-zeko asmoz. ■ A.Ugalde

Gizarte mugimendutik datozen kideek osatzen dute Zeozer elkarteak. Durangaldeko garapen soziokulturalak arduratuta, aurtengo martxoan sortu dute elkarteak, eta asteburuan NA.IT gau alternatiboaren ekimena antolatu dute, Mlomp eta Khuzayma elkarteekin. Durangoko Udalen eta +Dendak-en laguntza eduki dute.

Martxoan sortu zenuten Zeozer elkarteak. Zer helburugaz?

Gure helburua Durangaldeko pertsonen garapena da, bai pertsonala bai soziala. Eskualdean elkarte mordo dago, baina askotan ez dute elkarlanik egiten; bakoitza bere helburua betetzera doa eta kitto. Elkarte bakoitzari

“Elkarleen elkarlana eta boluntariotza bultzatu gura ditugu”

“Gauetako aisialdiaren inguruan hasi gara lanean, baina bestelako gaiak ere jorratu gura ditugu; inmigrazioa, esaterako”

bultzada emateko elkarrekin lan egin behar dela pentsatzen dugu. Zubiguneak taillerrean parte hartzen dugu, eta elkarlanean egindako ekitaldietan ere bai. Gauza berriak egiteaz gainera, beste elkartei lagundu gura diegu. Euretako batzuekin batzartu gara eta euren kezketako bat gazteek ez dutela boluntario izan gura da. Hori egia da; gazteek ez dakite zelan boluntario izan. Baina, bestalde, elkarteek ere ez dakite gazteengana zelan gerturatu. Horretan lagundu gura dugu.

Gazteei zuzendutako elkarteak da? Orokorragoa da, baina bai, gazteei begirako proiektuagaz hasi gara. Konturatu gara ez dagoela alternatiba bat gauetan, eta euren aisia lokaletan eta tabernetan ematen dute, eta ohitura ez

osasuntsuak hartzen dituzte. Oraingoan asteburu alternatibo bat antolatu dugu, baina gure asmoa jarraitzea da, asteburu batez ez duzulako alternatibarik eskaintzen. Gazteengana ez dugu mugatu gura; inmigrazioa lako gaiak ere landu gura dugu, esaterako; NA.IT-erako Mlomp eta Khuzayma elkarteekin bat egin dugu eta elkarlana sustatu gura dugu.

Gaueko ohiturak aldatzea ez da erraza izango.

Oso zaila da. Gazte batzuk beharbada ez dira animatuko, eta entzun egin behar dugu zer esaten duten, eta zergatik ez diren animatzen. Andra Marian antolatu ditugu ekintzak apropos, han orain botelloia egiten dutelako. Aukera bat eskaini gura diegu, behintzat; hamar

kideko talde batean baliteke bederatzik ez gura izatea ohiturak aldatzea eta batek bai; bat hori animatuko da eta jendea ezagutuko du. Zer edo zer egiteki hasi behar da. Ni lehenago joaten nintzen Bilbo Gaua-ra, eta noiz-zean behin joateko ondo, baina urrun dago. Durangon bertan alternatibak eskainta, aitzakia gutxiago! Guk ez dugu esaten poteoan ibiltzea-eta txarra denik. Hona etorri eta gero pote batzuk hartu daitezke, 12:30 aldera amaituko da. Gutxienez, bestelako zer edo zer egitea da kontua; gaueko helburua ez dadila izan edatea eta kristoren parranda botatzea.

Bestelako zer edo zer esan duzu. ‘Zeozer’ izena dauka zuen elkarteak ere.

Hitz egokia topatzea itzelezko lana da. Izena pentsatzen goiz oso bat egin eta gero, kafe bat hartzea joan ginen, eta baten batek “zer edo zer gura dozue?” galdetzean konturatu ginen, Zeozer hitza positiboa dela; proiektuak zer edo zer batetik has-ten dira, gauza txiki batetik.

2011/2012 ikasturtea

20
urteko
esperientzia



Matrikulazioa zabalik hileror!!

DATAK / Fechas	EGUNAK	BARNETEGIAN	PENTSIO ERDIAN
Urriaren 3tik azaroaren 11ra	5	663,50 €	599,25 €
Azaroaren 14tik abenduaren 22ra	26	690,04 €	623,22 €
Urtarrilaren 9tik 31ra	17	451,18 €	407,49 €
Otsailaren 1etik 29ra	21	557,34 €	503,37 €
Martxoaren 1etik 30era	22	583,88 €	527,34 €
Apirilaren 16tik maiatzaren 11ra	18	477,72 €	431,46 €
Maiatzaren 14tik ekainaren 1era	15	398,10 €	359,55 €
Ekainaren 4tik 29ra	20	530,80 €	479,40 €



Larrea auzoa, z/g • 48340 Amorebieta • Bizkaia
 Tel.: 94 630 83 04 • Faxe: 94 630 89 09
 barnetegi@aurtenbai.com
 www.aurtenbai.com

IRITZIA >

gutunak@anboto.org

Gutunak @

Auzolan topaketak, zaharrak berri Usurbilen

Behin batean, aspaldi-aspaldi, mendiek eta animaliek izenik ez zuten sasoian, ba omen ziren Urola ibaiaren inguruan bi mendi nagusi. Eta biek ere, bazter haietako nagusitasuna aldarrikatzen zuten, ospetsua omen zen bien arteko ezinikusia. Eta horrela behintzat, honelaxe galdetu omen zion mendi batek besteari egun batean: - Hi zer haiz? Eta besteak, berriz, honelaxe erantzun: - Hi bezalako zazpi!

Eta handik aurrera, bata Izarraitz eta bestea Izazpi izan omen ziren.

Eta egiak egi, ederrak eta bereziak dira elezaharrak, baina aldi berean gogor eta zakarrak ere badira. Sinesmen zaharrek gure mundua ulertzeko eta antolatzeko bidea ematen digute, eta kontakizun bakoitzak bere esanahia dauka. Eta agian, arestiko kontakizun txikiarena, erronkei aurre egitearena izango da. Zezen beltza aurrez aurre hartu eta adarretatik eusteko premiarena. Bai norbanako gisa, zein euskaldun gisa ere, ez badiogu zezen beltz oldarkorrari adarretatik eusten, txarto behar dugu izan. Gaur egun pairatzen dugun sistema kapitalista, faxista, liberal berri eta globalizatzaileak, hainbat tresna erabiltzen ditu gu denok erdi akabatuta lagatzeko. Baina zorionez hainbat herritarrek, enbidoari aurre eginaz, hordagoa bota dute. Usurbilgo herrian antolatutako I. Auzolan Topaketetan, gaur egun daukagun gizarteari buruz berba egin zen eta atalez atal gure gizarteko hainbat esparru aztertu; hala nola, argindarra, euskalgintza, deshazkundera, elikadura, osasuna, kultura, hezkuntza...

Eta hasiera besterik izan ez bazen ere, eman dira aurreneko pausoak eta jarriak dira hurrengo bilera egunak. Aza-

roaren 12an Iruñean bilduko gara, eta hemendik deia egiten dizuegu parte hartzeko.

Abian da, beraz, Auzolan Ekimena eta gizarte berdinzaleagoa lortu asmoz auzolana eta batzarra bultzatu nahi ditu, herriz herri. Tokian tokiko burujabetasuna aldarrikatzen du eta hori lortzeko tresnak auzolana eta batzar edo bilerak izango direla.

Benetan beldur handia ematen du zezen beltzak, denok ere lepotik harrapatzen baikaitu, baina talde-lanean menderatu dezakegu. Horrela egiten zuten lana gure antzinakoek eta geuk ere badugu zer ikasia haiengandik. Jasone Mitxeltoarena etxalartarak idatzitako liburu bikainean, hainbat argibide lor daitezke: "Auzolanaren kultura. Iraganaren ondarea, orainaren lanabesa, etorkizunaren giltza" liburua izango da Auzolan Ekimena herriz herri eta auzoz auzo aurkezteko baliabidea eta dagoeneko salgai dago liburutegietan. Bestalde, internet zaleentzat ere hortxe dago aukera, www.azolan.info webgunean, eta hor aurkitu daiteke ekimenari buruz beharrezko informazio guztia.

Abian da Aro berria eta ilunpetan zegoen tunel humeletik ateratzen hasiak garenez, argitasuna non- nahi antzematen da. Baina argitasun gehiegi izateak ere, nahasmena sor dezake. Gerdialdia egin eta hausnartu beharra dago. Tunel osteko argitasuna zabalegia da eta bidea aukeratu beharra dago. Ez da makala aurrean daukagun mendi gailurra, baina handiagokoak direnak ere egin izan ditugu euskaldunok. Mendi tontor gainera igo behar dugu: aurrera gizarte taldekoi eta berdinzaleak, aurrera auzolana eta batzarra!

Gurutx Garmendia - Auzolan Ekimena

Sei hankako mahaia



Idoia Agorria
PSE-EE

Eguna alaitzen didate

Gosaldu bitartean albisteak irakurtzea gogoko dut, gero eta gehiago interneten bidez; aste-barruan presaka titularrak eta denbora badaukat albiste interesgarrienak irakurtzen ditut. Baina asteburuan, denborarekin, ostiralero heltzen den Anboto astekaria hartzen dut eta, kafe batekin, presa barik, gozatzen dut. Sarritan albiste asko ez dira onak, baina onak direnean bizitza alaitzen didate; adibidez, pasa den hilekoak: "ETAK armak utzi ditu behin betiko". Aste honetan ere albiste onak eduki ditugu, eta protagonistak herrikoak, ezagunak eta batzuk lagunak dira.


Zorionak eman behar dizkiot, euskaltegian ikaskide dudana Gurutze Fradesi, Muga-ria triatloi taldeko bera, Espainiako Distantzia Luzeko Triatloi txapelketa irabazi duelako. 4 kilometro igerian, 120 bizikletan eta 30 korrika; 7 ordu eta 17 minutu. Jaungoikoa bat eta bera nahikoa... zu zara, zu, gogorra!

Eskerrik asko, Anboto, hurbileko berriak euskaraz gozatzeko aukeragatik

Nire zorionak, baita, bihotz-bihotzez, Juanan Aroma eta Karmelo Barrietabeñari, Euskadiko Txistulari Elkarte zilarrezko domina lortu dutelako; bizitza osoa daramate txistuaren soinuarekin.

Eta, nola ez, nire zorionak eta eskerrak Anbotori, bere 10. Urteurrenean, kazetari multzo profesionala zaretelako. Zuek zarete niri astero albiste berri ematen didazuenak, eta batzuetan nire eguna alaitzen duzuenak ere zuek zarete. Eskerrik asko, Durangaldean bizi garenok, zuen astekariarekin, hurbileko albisteekin euskaraz gozaten dugulako.

Eskerrik asko eta zorionak, Anboto!



Bixente Kapanaga 9, 48215 Iurreta - astekaria@anboto.org
Izen-abizenak, telefonoa, helbidea eta NAN
zenbakiagaz batera bialdu behar dira.

Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia
helarazteko helbideak:

Alderdi, elkarte edo taldeko iritziak kide baten izenean sinatuta eta ANBOTOren irizpideak jarraituz zuzenduta publikatuko dira.
DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO



Kultura Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza)
diruz lagundutakoa



anboto
durangaldeko astekaria

Anboto komunikabideak Elkarte
2011ko azaroaren 11 - 10. urtea - 436 zk.

Laguntzailea:



Eta honako udal guztiak:



Zuzendaria:

Jone Guenetxea.

Erredakzio burua:

Joseba Derteano.

Administrazio burua:

Itziar Belar.

Administrazioa: Miren Abasolo.

Publizitatea: Goretzi Alonso,

Amaia Huarte.

Erredakzioa: Aitziber Basauri,

Itsaso Esteban, Markel Onaindia,

Amaia Ugaldede.

Maketazioa: Ainhoa Arizmendiarieta.

Testu zuzentzailea: Igor Elortza.

Argazkilaria: Kepa Aginako eta Juanra de la Cruz.

KULTURA

ZINEMA > EMANALDIAK



Bertsolaritza zinearen begietatik erakusten duen lana: 'Bertsolari'

Urrian estreinatu zutenetik lau astez izan da **Asier Altuna** zuzenduriko filma Euskal Herriko hiriburuetan ikusgai. Datozen egun eta asteetan, Durangaldeko hiru herritan egingo digute 'Bertsolari' ikusteko gonbita

Lau aste daramatza Asier Altuna bergararraren *Bertsolari* filmak Euskal Herriko hiburuetako zinema aretoetan. Zuzendariak azaldu digunez, "herriz herri ere beste bost-sei kopia ari gara zabaltzen". Asteburu honetan, azaroaren 13an eta 14an, Elorrioko Arriolan, 24an Durangon eta 29an Berrizen emango dute filma Durangaldean.

"Miren eta Xabier Amurizaren herria delako", Asier Altuna zinema zuzendari bergararrak gogo berezia ei dauka urrian estreinatu zuten *Bertsolari* pelikula Berrizen erakusteko.

Azaroaren 23an, berriz, Unai Iturriaga bertsolariak lagunduta, egingo du Altunak filmaren aurkezpena Arriolan, 19:00etan, eta 20:00etan emango dute filma.

Altunak eta Iturriaga bertsolariak aurkeztuko dute filma Arriolan

"Bertsolaritza zer den oso modu sinplean, lurtarrean, azaltzen da pelikularen hasieran", kontatu digu zuzendariak. Konkretutik abiatu arren, baina, "filmak aurrera egin ahala hegaz hasi eta bidaia bat da proposatzen du: inprobisazioa irudikatzen dugu,

isiltasunarekin asko jokatzeko dugu", kontatu digu Altunak.

Orain arte erakutsi dutenetan, "filma jendeari iristen zaiola somatu dugu", dio zuzendariak, "eta gozatu ederra hartzen duela". Emanaldien ostean ikusleen aurpegietan hunkidura puntua, "begietan distira bat" nabari ohi da.

Bertsozale Elkartek zein bertsolari eta zaleek goraiatu dute lana

Bertsozaleek, bertsolariak eta Bertsozale Elkartek ez ezik, aurretik bertsolaritza ezagutzen ez zutenek ere, inprobisazioaren mundua hain modu erakargarrian erakutsi izana eskertu diote zuzendariari. Azaroan Durangaldeko hiru herritan luzatu digute filma ikusteko aukera. ■ I. Esteban

"Pelikula polita, poetikoa sortzea gura izan dut"

Bertsolaritzaren zer ikuspegi da zinemaren bitartez erakutsi gura izan duzuna?

Hasieratik, ezagutzen ez duen jendeari bertsolaritza zer den erak-

kusteko gogoia eduki dut, uste dudalako oso mundu erakargarria eta berezia dela. Bertsolaritzaren inguruan, hitzekin jolasten, zelako momentu politikak disfrutatu



Asier Altuna zinema zuzendaria

daitezkeen gura izan dut erakutsi. Pelikula polita, poetikoa gura izan dut sortu: jolasari lekua egingen diona. Jendeari irudien bitartez gura izan diot helarazi bertsok entzutean sentitzen dena.

Filmaren aurpegiatiko bat Miren Amurizarena da.

Bai. 2009ko Euskal Herriko finaleko protagonistak daude batetik; Andoni Egaña txapeldun ohia eta gaur egungo Maialen Lujanbio txapelduna, eta Jon Sarasua, Joseba Zulaika eta beste aditu batzuk ere agertzen dira. Miren, bertsolaritza irudikatzen erabili dugu; bera da irudi berezien aurpegia.

"Irudien bitartez gura izan dut helarazi bertsok entzutean sentitzen dena"

Dokumental eran kontatzeko gai aproposa izan arren, oso lan bisual eta poetikoa sortu ei duzu.

Bertsolaritza zer den modu erakargarrian islatzea izan da hasieratik eduki dudana intentzioa, eta egia da zinetik asko daukala pelikula honek. Uste dut horregatik sartu zela Zinemaldiko sail ofizialean; eta ari gara munduko jaialdi askotara joateko gonbidapenak jasotzen. Sentsazioak sortzeko batzen dira pelikulako irudiak.

Zein izan zen hasiera?

2005eko finalean hasi nintzen pentsatzen BECen sentitu nuena lako emozioa zinemara eramatea polita izango litzatekeela. Bertsolaritzari buruz irakurtzen hasi nintzen lehenengo. 2009ko finalean aurrean, Andoniri deitu eta jarraipen bat egitea proposatzea erabaki nuen. Hortik aurrera, bata bestearen atzean etorri da dena; martxan zegoen pelikula.

EMANALDIAK

Elorrioko Arriolan

Azaroaren 13 eta 14an, 20:00etan.
(Azaroaren 13an, 19:00etan, Asier Altuna zuzendaria eta Unai Iturriaga bertsolariak aurkeztuko dute filma)

Durangoko zineklubean

Azaroaren 24an

Berrizko kultur etxean

Azaroaren 29an, 19:30ean.

MUSIKA > ZIKLOA

Sei kontzertu Jazz Blues Jaialdiaren hamabigarrenenerako

Portalekua tabernan eta Ateneoan izango dira Elorrioko XII. Jazz Blues Jaialdiaren barruko sei emanaldiak

Hamabigarren urtez ospatuko dute Jazz Blues Jaialdia, hil honen bi asteburutan, Elorrioren. Arriola antzokian antolatuko dute sei zuzeneko jasotzen dituen egitaraua, eta Portalekua tabernan eta Ateneoan izango dira sei kontzertuak.

Jaialdiaren ohiko filosofiagaz, Durangaldeko zaleei jazz eta blues doinu ahalik eta aukerarik anitzena eskaintzea da helburua: Euskal Herrian musikaren alor horietan pil-pilean dagoena zein beste herrialde batzuetan jaiotako sorkuntzak dakartzate.

Jazz eta Blues Jaialdiaren aurtengo edizioan parte hartuko duten sei taldeetatik hiru dira Euskal Herrian sorturikoak. Belce-

blues hirukote bergararrak jardungo du, azaroaren 17an, Portalekua tabernan; Gasteizko The Hot Wok-ek azaroaren 18an; eta Dynamic Triok azaroaren 24an.

Parte hartuko duten sei taldeetatik hiru dira Euskal Herrian sortuak

Carl Winther pianista, bere hirukoteagaz, azaroaren 25ean



Inglaterratik, Danimarkatik eta Belgikatik etorriko dira beste hiru musika talde, gainera, Arriolako XII. Jazz Blues Jaialdiaren barruan, Ateneoan zuzenekoak eskaintzera: Sons Of The Delta taldeko blueslariak, Carl Winther piano-jolearen inguruan sorturiko jazzlari hirukotea, eta Lightnin' Guy & The Mighty Gators Belgikako blues taldea. ■ I.E.

DATAK

Belceblues

Azaroaren 17an, 21:00etan, Portalekua tabernan

The Hot Wok

Azaroaren 18an, 22:30ean, Ateneoan

Sons Of The Delta

Azaroaren 19an, 22:30ean, Ateneoan

Dynamic Trio

Azaroaren 24an, 22:00etan, Ateneoan

Carl Winther Trio

Azaroaren 25ean, 22:30ean, Ateneoan

Lightnin' Guy & The Mighty Gators

Azaroaren 26an, 22:30ean, Ateneoan

AURKEZPENA > LIBURUA

Juan Bizente Gallastegi durangarrak *Tontorretik begira, abade baten oroipenak* izenburuagaz, bere bizipen eta hausnarketekin osatu duen liburuaren aurkezpena egin zuten Durangoko Udalean atzo.

Orain hiru urte idatzi zuen Gallastegi liburu, eta Labayru Ikastegiaren Sutondoan sortan kaleratu dute, besteak beste, egileak abadetzan jardun duen eta liburuan agertzen diren Durango, Iurreta, Elorrio, Atxondo, Etxebarriko udalen babesagaz.

Liburuko protagonista ez dela bera dio egileak, "bizitza osoan inguruan izan ditudanak", baino. Labayruko Adolfo Arejitaren esanetan, "testigantza inportantea da liburukoa: Gerra Zibilaren garaitik gaur egun arteko ibilbidea osatuz, gizartearen lekuko eta kronista izan delako Gallastegi".

Azaroaren 17an Iurretan egingo dute liburuaren jendaurreko aurkezpena, eta abenduaren 2an Elorrioren. Durangoko Liburu eta Disko Azokan ere eskuragarri izango da *Tontorretik begira*. ■ I.E.

Juanito Gallastegiren 'Tontorretik begira' aurkeztu dute Durangon

Juan Bizente Gallastegi egileak, Anbotoko kolaboratzaile denak, Durangoko alkateak eta Labayruko Adolfo Arejitak aurkeztu zuten



MUSIKA > EMANALDIK

Sax@roa taldea eta Bilboko Txistularien Banda, sopranoagaz, Iurretan

Musika emanaldi bi biltzen ditu Iurretako Udalak azaroaren 18rako eta 22rako antolatu duen Musika Hamabostaldia

Lehenago Mikel Deuna elkartea-gaz batera antolatzen zuen Musika Hamabostaldia dakar, beste urte batez, Iurretako Udalak. Doako bi emanaldi antolatu dituzte zikloaren barruan, azarorako.

Azaroaren 18an, konposatzaile klasikoaren sorkuntzak jazz doinuekin interpretatuko dituzte Sax@roa taldeko musikariek, Ibarretxe kultur etxean; Bach-en, Parker-en edo Coltrane-en kantak eskainiko dituzte, esaterako.

Iurretako kultur etxean bertan aurkeztu zuten zikloa, atzo, Tototikaguena alkateak eta Bilboko Txistulari Bandaren Garikoitz Mendizabal zuzendariak. Hain

zuzen ere, Bilboko txistularien bandak formatu bereziko emanaldia eskainiko du azaroaren 22an Iurretako San Migel elizan: Naroa Intxausti soprano basauritarra laguntzen jardungo dute hiru txistularik, perkusio-jotzaileak eta gitarrista eta pianista banak. ■ I.E.

EMANALDIK

Azaroak 18, Ibarretxe

'Sax@roa' taldea, 19:00etan, Ibarretxe kultur etxean

Azaroak 22, elizan

Naroa Intxausti sopranoa eta Bilboko Txistularien Banda, San Migel elizan

PLATERUENA Durangoko Kafe Antzokia

www.plateruena.net



AZAROAK 16 20:00etan
**INDARKERIA MATXISTAREN
AURREAN FEMINISTAK
MARTXAN**DOKUMENTALA.Doan.

AZAROAK 17 20:00etan
**MAITE ARROITAJAUREGI
KANTUAREN KANTOIAN.**Sarrera doan.

AZAROAK 18 22:00etan
**KATAMALO
KONTZERTUA.**Sarrerak agortuta.

Eguneko menua astelehenetik larunbatera
Landako etorbidea, 4a 48200 Durango Tel.:946 030 300

ANDRÉ Y DORINE Kulunka Teatro



Azaroak 13 • 19:00

San Agustin
KULTUR
GUNEAN
DURANGOKO UDALA

Hitz
liburu-denda
Segi horrela!
artekalea 14,
durango (bizkaia)
info@hitzliburudenda.com
946 810 776

KIROLAK >

“Jokalari batek desio duen guztia dut orain; minutuak eta entrenatzailearen konfiantza”



DATUAK

Izen-abizenak:
Ander Iturraspe
Adina eta herria:
22 urte, Abadiño
Ibilbidea:
2007/08: Baskonia
2008/09: Bilbao Athletic
2009/11: Athletic
Bitxikeriak:
Entrenatzaile titulua ateratzen ari da. Aurten bigarren urtea du.

Rayo Vallecanoren kontra estreinatu zinen golegile moduan, ligako lehen partidaren. Itzelezko sentzazioa izan zen; gaitza da berbekin azaltzea. Ea las-ter errepikatzen dudana.

Dioten bezain metodikoa da Marcelo Bielsa?

Bada, bai. Entrenamenduetako ariketa batean posizioa galduta ikusten bazaitu, metro bategatik bada ere, konturatuko da eta zuzenduko zaitu. Perfekzionista eta zorrotza da. Bartzelonaren partidaren aurretik, banan-banan esan zigun bakoitzarengandik zer itxaroten zuen.

Zuri zer esan zizun?

Zelaian asko presionatzeko, baloiagaz pertsonalitatea erakusteko eta ausart jokatzeko esan zidan.

Txoritxo batek esan dit despistatua zarela.

Harrapatuko dut, bai, txoritxo hori. Anekdotak bat kontatuko dizut. Iaz Bartzelonako hotel batean geundela afalordura berandu heldu nintzen, lo geratu nintzelako. Txandalean jaitsi behar genuen eta, zapatillak aurkitu ez eta zapatak jantzi nituen txandalagaz batera. Taldekideek ikusi nindutenean, txaloka hartu ninduten. Dena dela, nire alde esan behar dut aurten asko ikasi dudala, eta egiten nuena taldeko giro ona mantentzeko egiten nuela (barrez). ■ J.Derteano.

Asteburuan partidarik ez izatea eskertuko duela dio; aste honetara arte hile osoan apenas izan dute jaiegunik.

Aurten gauetik egunera lako aldaketa izan du Ander Iturrasperen egoerak Athletic futbol taldean. Iaz minutu gutxi jokatzetik, Ander Herrerragaz zelai erdiko bikote sendoa osatzera pasatu da orain.

Oraindik bolo-bolo dabil kalean Bartzelonaren kontrako neurketak. Zelan gogoratzen duzu?

Partida intentsoa izan zen. Talde ausarta izan ginen, izaera erakutsi genuen, eta azken unean berdindu egin zuten norgehiagoka, nire huts bategaz.

Zure hutsa izan zela uste duzu?

Iraizozek ozen eskatu arren, partidaren geneukan tentsioagatik, ez nuen entzun. Atezainaren baloia zen. Pena da, baina futboleko horrelakoak gertatzen dira.

Bielsaren sistema barneratuta daukazuela esan daiteke?

Guk argi izan dugu proiektu honek denbora behar zuela. Hasieran, emaitzak ez ziren aldekoak izan, baina konfiantzaz eta lana asko eginda gora egin dugu.

Haizea kontrako norabidean zetorrenean dudarik sortu zen?

Ez. Caparrosen eta Bielsaren proiektuek ez dute zerikusirik. Ez diot Bielsarena hobea denik; erabat desberdinak direla diot. Denbora behar izatea normala da.

Hamar partida galdu barik, eta Europa League-n multzoburu.

Zaleen artean ilusioa piztu da eta somatzen dugu. Domekan ere ikusi zen; Bartzelonaren kontra berdindu arren, zaleek gehiago gura zuten. Guri gogo hori helitzen zaigu, eta indarra ematen digu. Hala ere, denak du bere oreka: liga hasieran ez ginen hain txarrak, eta orain ere ez gara onenak. Oinak lurrean, lanean jarraitu behar dugu.

Athleticen lehen taldean zaudentik unerik gozoena bizi duzu?

Bai. Jokalari batek desio duena partidak jokatzeko eta entrenatzailearen konfiantza izatea da. Nik momentu honetan biak ditut, eta pozik nago.

Iaz justu kontrako egoeran aurkitu zenuen zure burua.

Jokalari asko gaude, eta denek ezin dute jokatu; iaz egoera hesiaren beste aldetik bizitzea egokitu zitzaidan. Momentu txarrak pasatzen dira halakoetan, baina ikasi ere egiten da; indartsuago egiten zaitu. Hemendik aurrera, minutu gutxi jokatzeko egokitzen bazait, badut esperientzia eta badakit zelan jokatu.

Oraintsu, 2015era arte luzatu duzu kontratua Athletic egaz.

Aspalditik nago Athleticen, eta nire desioa hemen, klub honetan jarraitzea zen.

Iaz unereren batean pentsatu zenuen kontrakorik?

Nik argi nuena da ezin nintzela beste urtebetez jokatu barik

“Iaz egun txarrak pasatu nituen, baina egoera horietan ikasi egiten da; indartsuago egiten zaitu”

“Zaleengan ilusioa piztu da, baina guk oinak lurrean ditugula jarraitu behar dugu eguneroko lanean”

egon; jokalari moduan garapena apurtzen zidalako, aurten kontratua amaitzen zelako... hainbat arrazoiengatik. Caparrosen jarraitu izan balu, ez dakit nire etorkizuna zein izango zen. Nigan konfiantza zuela zioen, baina ez zuen erakusten, eta horrek jokalari bati eragin egiten dio. Batek daki non egongo nintzen une honetan gauzak beste modu batera eman izan balira.

Sarritan bikotea osatzen duzu Ander Herrerragaz. Zelan konpontzen zarete?

Oso ondo. Dohain asko eta oso onak ditu. Gainera, nik aspalditik ezagutzen dut, hamar urte genituenetik elkarren kontra sarritan jokatu izan dugulako; zelaiko gune berean jokatzeko dugunez, askotan topo egin izan dugu baloiaren bila.



Argazki Press

Gimnasiako artistak prest Landako dotoreziaz janzteko

Munduko azpitxapeldun den Daria Kondakova lako gimnastak batuko dira domekan Landako kiroldegian, Euskalgym jaialdian



Gazteen lehiaketaren ondoren irtengo dira profesionalak kantzara. Manu Fernandez

Gimnasia erritmikoa elegantiaren sinbolo da. Entrenamenduek eskatzen duten sakrifizioa artelan harmoniko bihurtzen da jendaurrean, beti ere, artistaren irribarreak lagunduta. Domekan eleganzia horren lekuko izango da Durangoko Landako kiroldegia Euskalgym jaialdian. Munduko gimnasta onen eta tokiak erorriko dira.

Bilbon Euskalgym jaialdia antolatuko du Euskadiko Gimnasia Federazioak zapatuan, eta, aukera aprobaxatuz, domekan

Landako Kiroldegira ekarriko dute erakustaldia Durangoko Uztai taldeak lagunduta.

Profesionalen aurretik estatu mailako 40 talderen arteko lehiaketa egingo dute. 10:30etik aurrera, banan-banan irtengo dira taldeak Landako kiroldegiko kantzara, eta 13:00ak arte iraungo du txapelketak. Euskal Autonomia Erkidegoko sei taldek parte hartuko dute eta horietako hiru bizkaitarrak dira: Dana, Sakoneta eta Xixili taldeak. Nafarroa, Katalunia, Galizia,

Madril, Errioxa eta Gaztela Leongo hainbat taldek ere eskainiko dute euren abilezia.

Izarrik handienak

Ondoren, 13:30ean munduko gimnastarik onenek hartuko dute lekukoa. Irailean Frantzia jokatu zen Munduko Txapelketan espezialitate denetan azpitxapeldun geratu zen Daria Kondakova errusiarragaz batera, Dmitieva, Garayeva, Charkashyna edo Bessonava lako izarrik ikusi ahalko dira bertan. ■ J.D.

Judoaren maisu handi bi asteburuan Durangon

Uematsu anaiak Durangon izango dira



Uematsu anaiak nazioarteko hainbat lorpen eskuratu dute.

lazko arrakastak bultzatuta, Durangoko Judo Taldeak II. Judo Stage-a antolatu du asteburuan. Iaz Wolfgang Heindel jiu-jitsuko munduko txapeldun ohia gonbidatu zuten, eta aurten ere ez dira atzean geratu: Portugaletoko Uematsu anaiak (Kenji eta Kiyoshi) etorriko dira.

Stage-a Ezkurdi Jai-Alai pilotalekuan egingo dute, zapatuan 11:00etatik 13:30era eta 16:30etik 19:30era, eta domekan 10:30etik 13:30era. Gazte txoei begirako erakustaldiak eskainiko dituzte eta euren esperientzia zabalaren berri ere jakingo dute. Nagusiei begira klase espezifikokoak ere eskainiko dituzte. Kiyoshik Londresko joko olimpikoetan egoteko aukera handiak ditu eta Kenji diploma olimpikoa lortu zuen Atenasen. ■ J.D.

Finala Uriartek eta Gonzalezek jokatuko dute trinketean

Rober Uriartek eta Mikel Gonzalezek buruz buruko Euskadiko elite mailako txapelketako finala jokatuko dute barikuan, 19:00etan, Tornosolo trinketean. Lehenago, hirugarren eta laugarren postuak jokatuko dituzte Antxiak eta Rafaelek.

Finalerdietan Gonzalez berriztarrek 40-37 menderatu zuen Ander Antxia abadiñarra, partida gogor eta borrokatuan. Oreka izan zen nagusi lehia osoan zehar. Uriartek 40-27 irabazi zion Mikel Rafael arabarrari. Partida hasiera parekatua izan zen (17-17), baina ordutik aurrera abadiñarrak asko asmatu zuen. ■ J.D.

Gurutze Frades onena distantzia luzeko triatloian

Mugarra triatloi taldeko Gurutze Fradesek Distantzia Luzeko Triatloian Espainiako Txapelketa irabazi du. Raquel Lombok bakarrik kendu ziezaiokkeen txapelketa, eta Alcanteko Orihuela herrian jokatutako triatloian gehiago izan da Frades. Txapelketa ez ezik, Orihuelako triatloia ere irabaztea lortu du.

Bestalde, Mugarra bizikleta artearak egiten hasi da. Ibilbide hauek, denboraldi hasierarako edo sarri etortzen ez direnentzako pentsatuta daude. Esaterako, zapatuan eta domekan 09:00tan lurretako zubian geratu dira. ■ J.D.

Urien Espainiako Opena irabaztear prototipoetan

Igor Urienek (16 urte, Abadiño) Espainiako Prototipoen Opena irabazi dezake asteburu honetan. Nafarroako zirkuituko lasterketa bakarrik falta da opena amaitzeko eta Urien lider dago oraintxe sailkapenean. Beraz, 16 urte gaz estatu mailako zein nazioarte mailako goi mailako pilotuek parte hartzen duten opena irabazteko zorian dago.

Urien urtetik urtera aurrerapausoak ematen dabil. Iaz bigarren amaitu zuen prototipoen CM Sport Espainiako Txapelketa. ■ J.D.

Agenda

- FUTBOLA**
HIRUGARREN MAILA
Kulturala - Zamudio
Zapatuan, 17:00etan, Tabiran GOREN MAILA
Berriz - Mungia
Domekan, 11:30ean, Berrizburun
Zaldia - Aranguren
Zapatuan, 17:00etan, Solobarrian
HIRUGARREN MAILA
Ezkurdi - Extremeño
Zapatuan, 16:00etan, Arripasuetan
Iurretako B-Salesianos
Zapatuan, 16:00etan, Larrakozelain
Berriz B - San Ignacio B
Zapatuan, 17:00etan, Berrizburun
Elorrio B - La Merced
Zapatuan, 18:00etan, Eleizalden
LEHENENGO ERREGIONALA (emakumeak)
Iurretako - Barakaldo
Zapatuan, 18:15ean, Larrakozelain
Elorrio - Sestaotarra
Zapatuan, 16:00etan, Eleizalden

- ARETO FUTBOLA**
HIRUGARREN MAILA
Elorrioko Buskantza - Bilbo Tecuni
Domekan, 11:30ean, Elorrioko udal kiroldegian
Mallabia Hierros Serv - Aurrera Vitoria
Domekan, 17:30ean, Zaldibarko udal kiroldegian
EUSKAL LIGA
Sasikoa - Galdakao
Zapatuan, 18:30ean, Landako Kiroldegian
GOREN MAILA
Abadiñoako Lagun - Altamira
Zapatuan, 17:15ean, Berrizburun
LEHENENGO ERREGIONALA
Dantxari - Zamudio
Zapatuan, 16:30ean, lurretako Lanbide Heziketa Institutuan
Elorrioko B - Iturritxo
Zapatuan, 18:00etan, Elorrioko udal kiroldegian
Sapuberri - Arabella
Zapatuan, 17:00etan, Landako kiroldegian

- SASKIBALOIA**
LEHENENGO MAILA (gizonak)
Tabirako Baqué - La Salle
Zapatuan, 17:00etan, Landako kiroldegian
LEHENENGO MAILA (emakumeak)
Tabirako Baqué - Uni. Deusto Loiola
Zapatuan, 19:00etan, Landako kiroldegian

- PILOTA**
OLAZAR TXAPELKETA
Lau t'erdian
Elezkano II-Legorburu
Binaka
Azpiri-Landaburu / Elezkano-Gorrotxategi
Azaroaren 17an, 21:30ean, Zaldibarko pilotalekuan

momtxo
t a b e r n a
plateruen plaza, 12 • 48200 durango
tel.: 94 681 10 06

Urte askotarako!

Kalbarria s/g - 48200 Durango
94 629 88 93 - Fax: 94 681 84 03


Aurrera Anboto!

Arrike
Liburudenda


Gerediaga eta Azoka sarean

Gerediaga elkartearen eta Durangoko Azokaren berri interneten ere aurkitu dezakezu. Webguneaz gain, Twitter, Facebook, Flickr edota Youtube sare-sozialetan biek dute bere lekua. Egin zaitez zale eta jarraitzaile, eta Gerediagaren zein Azokako gorabeheren momentuko berri saretik eskuratu ahal izango duzu.



 46 Durangoko Euskal Liburu eta Disko Azokara begira erabiliko dugun hashtag edo etiketa #azoka11 izango da. Durangaldeko gaiak nabarmentzeko, berriz, #Durangaldea erabiltzea proposatzen dizuegu.

GEHIAGO:



Hurrengo txartela zure datuekin bete eta Gerediaga Elkarteak Durangoko Euskal Liburu eta Disko Azokan izango duen gunera eraman.

Azokako nobedadeen otzara bat eta Kurutzia Hotelean 4 lagunentzat afaria eskuratzeko aukera izango duzu.

IZENA _____

HELBIDEA _____

HERRIA _____

TEL. _____

E-MAIL _____

Baimena ematen diot Gerediaga Elkarteari 15/1999 LOK eta 34/2002 Legeak xedatutakoari jarraituz informazioa nire posta elektronikora bidaltzeko





ZATOKAZA, ZATOKAZA GEREDIAGARA



AMALURRA>



Basoberritze lanak eta informazio panel berriak Urkiolako Parkean

Bertako landaretza berreskuratzeko, parkean bertan batutako haziak erein dituzte Urkiolako Parke Naturalean

Arinago esplotaziorako zuhaiztiak zituzten hainbat lursailetan, arbolak bota eta bertako landaredia berreskuratzeko beharra egin dute Urkiolako Parke Naturalean.

Bertako landaredi barik geratutako lursail batzuk era naturalean berreskuratzeko badira ere, beste kasu batzuetan basoberritze prozesua gaitzagoa izaten da, eta hori dela-eta Urtemondo mendiko baso batean 15,4 hektarea basoberritu dituzte, bertako landaretzako haziak ereinda.

Lursail horretan arinago egondako pinudiek eta abeltzaintza jarduerak, besteak beste, lurra pobretu egin dute, eta horregatik da gaitza bertan landaretza bere kabuz haztea.

Sastrakak kendu, ingurua garbitu eta Urkiolako Parkean bertan batutako haziak erein dituzte Urtemondon. Ereindakoa babesteko hesia ipini diote lur

zatiari bere inguruan. Horrez gainera, oinezkoentzako ibilbideek basoberrituko dituzten lurak zeharkatzen dituzte. Ibilbide horiek biziberritzeko, lurrekin uztartzeko zurezko eskaierak ipini dituzte.

Bizkaiko Foru Aldundiko arduradunek adierazi dutenez, 99.240,97 euroko aurrekontua eduki dute Urtemondoko basoberritze lanek.

Kartel berriak

Aurten Urkiolako ibilbideen planifikazio berria egin dute, eta hori aprobetxatuta parke naturalean dauden kartel informatiboak aldatu dituzte. Ibilbide berriak batzen dituen mapa ipini dute. Panel informatiboetako batzuk berritu egin dituzte, eta beste batzuk aldatu ere egin dituzte, "oso kaltetuta" egon direlako.

Momentu honetan informazioa eskaintzen duten 30 kartel

daude Urkiolako Parke Naturalean, eta euretako 18k kalte nabarmenak izan dituzte. Berriak ipini dituzte euren ordez, eta beste 12 kartelak berriztatu egin dituzte.

Kartel informatiboak aldatzeak eta berriztatze-lanek 37.982,57 euroko kostua izan dutela adierazi dute Foru Aldundiko teknikariek.

Seinaleztapen berriak

Aurtengo udaberrian, gainera, ibilbideen inguruko informazio-gaz hainbat seinaleztapen berri ipini dituzte Urkiolako Parke Naturalean.

Seinale berrien artean, GR Mikeldiren zati batzuk markatu dituzte; Atxarte eta Untzillatx batzen dituen ibilbidea, esaterako. *Ardoaren eta arrainaren ibilbidea* deitutako ibilbide horren beste zati bat ere markatuta dago; Urkiolatik Otxandiora joan-etorria egiteko ibilbidea.

Urtemondoko
15,4 hektareatan, parkean bertan batutako landareen haziak erein dituzte

Parke Naturaleko 30
informazio karteletatik 18 "oso kaltetuta" zeuden, eta berriak ipini dituzte

AGENDA >

> ANBOTOKo agendan ezer iragarri gura badozu, agenda@anboto.org helbidera idatzi edo 94 623 25 23 telefonora deitu egiguzu, eguazten eguerdi aurretik.



Azaroaren 19an eta 26an, Durangon

HAURREI IPUINAK ZELAN KONTATU

Berbaro elkarteak antolatu du, azaroaren 19an eta 26an, Pello Añorga idazle oiartzuarra Durangon eskainiko duen haurrei ipuinak kontatzen ikasteko ikastaroa. Zapatu biotan, 10:00etatik 14:00etara izango dira saioak. Azaroaren 16a arte eman daiteke izena, Berbaro elkartearen.

ANTZERKIA

BERRIZ

- >> Azaroaren 12an, Pikor Teatro taldearen **S@rebegian** lana, 20:00etan, Kultur Etxean.
- >> Azaroaren 18an, En La Lona-ren **Sailuk hartz txikiaren bidaia** lana, 18:00etan, Kultur Etxean.

DURANGO

- >> Azaroaren 11n, **Indarkeria matxistaren antzerki foroa**, 20:00etan, Plateruenean.
- >> Azaroaren 13an, Kulunka Teatro taldearen **André y Dorine**, 19:00etan, San Agustinen.

ZORNOTZA

- >> Azaroaren 12an, **Ma, tren taupadak**, 18:00etan, Zornotza Aretoa.

AZOKA

ERMUA

- >> Azaroaren 12an, **San Martin azokaren** irekiera, 11:00etan (umeentzako jolasak, abere

erakusketa, artisauen postuak...). **Neska-mutilen baserritar jantzi-lehiaketa**, plazako oholtzan. **Euskal dantzak**, 12:30ean, plazan. Erakusleho lehiaketako sari-banaketa, 13:00etan. **Luhartz** taldearen erromeria, 18:00etan, Orbe plazan. **Kalejira**, 19:00etan. **Larraindantza**, 19:30ean, Orbe plazan.

- >> Azaroaren 14an, **San Martin kulturala: Afari-merienda autogestionatua**, 19:30ean, Erretea elkartearen (edariak eta gaztainak doan).

BERBALDIA

ELORRIO

- >> Azaroaren 13an, **Bertsolari** filmari buruzko aurkezpen berbaldia, Asier Altuna eta Unai Iturriagarekin, 19:00etan, Arriolan. Ondoren, 20:00etan, film emanaldia.

IURRETA

- >> Azaroaren 16an, **Tubabu** liburuari buruzko Jon Arretxeren hitzaldia (Irakurleen Kluba), Munduko

Paisaiak programaren barruan, 19:00etan, Herri Bibliotekan.

ERAKUSKETA

BERRIZ

- >> Azaroan, Asunción Poza berriztarraren **Zeramika** lanak, Kultur Etxean.

DURANGO

- >> Azaroaren 13 arte, **Carmen Soldevilla**-ren margolanak, Ezkurdiko erakusketa aretoan.

IURRETA

- >> Azaroaren 2tik 16ra, **Maliko liburu, filme, musika eta artisautzari buruzko** erakusketa; eta losu Garai argazkilariaren lana, Ibarretxe kultur etxean.

IKASTAROA

DURANGO

- >> Azaroaren 19an eta 26an, **Haurrei ipuinak kontatzen trebatzeko ikastaroa**, 10:00etatik 14:00etara, Pello Añorgaren eskutik. Izen-ematea, azaroaren 16ra arte, Berbaro elkartearen.

ZALDIBAR

- >> Eguaztenetan, 19:00etatik 21:00etara, **Djembe ikastaroa**, Gaztetxean. Informazio gehiago, 635 455 912 zenbakian.

KONTALARIA

DURANGO

- >> Azaroaren 18an, **Boni Ofogo** kontalariaren umeentzako saioa, 17:00etan, Udal Liburutegian. Ondoren, Munduko Paisaiak ekimenaren barruan, Boni Ofogoren Camerungo ipuinak.

LEHIAKETA

ELORRIO

- >> Azaroaren 11n eta 12an, **XI. 24 Ordu Digitalean** ikus-entzuneke lehiaketa, Arriolan. Azaroaren 11n, 17:00etan emango dituzte antolatzaileek parte-hartzaileek lanak osatu ditzaten gaiak. Azaroaren 12an, 22:00etan, egingo dute sari banaketa ekitaldia.

MUSIKA

BERRIZ

- >> Azaroaren 11n, **Humphrey Cao, Bajo Presión** eta **Tribute to Rip** taldeen kontzertuak, 21:00etan, Gaztetxean.

DURANGO

- >> Azaroaren 17an, **Maite Arroita-jauregi, Kantuaren Kantoia** zikloan, 20:00etan, Plateruenean.
- >> Azaroaren 17an, **Suzette Moncrief**, 20:30ean, Zelaieta zentruan.
- >> Azaroaren 18an, **Katamalo**, 22:00etan, Plateruenean.

ELORRIO

- >> Azaroaren 11n, **Namek Planet** eta **Pixontxis**, 22:30ean, Ateneoan.

ELORRIO

- >> Azaroaren 17an, **Belceblues** taldea, Arriolako XXII. Jazz Blues jaialdian, 21:00etan Portalekuan.

TAILERRA

IURRETA

- >> Azaroaren 11n, Munduko Paisaiak ekimenaren barruko trentza egiten eta buruko zapia jartzen ikasteko **haurrentzako tailerrak**, 17:30etik 19:00etara. 19:00etan, **gastronomia dastaketa eta dantza herrikoiak**, Ibarretxe kultur etxean.

ZINEFORUMA

BERRIZ

- >> Azaroaren 15ean, **Apaizac Obeto** filmaren emanaldia, 19:30ean, Kultur Etxean.
- >> Azaroaren 16 eta 18an, **Urte Berri On Amona!** filmaren emanaldia (16an, 22:00etan; 18an, 19:00etan), Kultur Etxean.

ELORRIO

- >> Azaroaren 17an, **Barkamena** dokumentala, 19:30ean, Iturrin.

ZORNOTZA

- >> Azaroaren 18an, **Laburrean**, hiru zornotzarrek ekoitziriko film laburrak, 21:00etan, Zornotza Aretoa.

ZINEMA

DURANGO

Zugaza

Mientras duermes

Zuzendaria: Jaume Balagueró
barikua 11: 19:00
zapateria 12: 20:30
domeka 13: 20:30
astelehena 14: 19:00
martitzena 15 (ikuslearen eguna): 20:00

La voz dormida

Zuzendaria: Benito Zambrano
barikua 11: 22:00
zapateria 12: 22:30
domeka 13: 22:30
astelehena 14: 22:00

Las aventuras de Tintín

Zuzendaria: Steven Spielberg
zapateria 12: 16:00/18:15
domeka 13: 16:00/18:15
Zineforuma

El caso Farewell

Zuzendaria: Christian Carion
eguna 17: 20:30

ELORRIO

Arriola

Bertsolari

Zuzendariak: Asier Altuna
domeka 13: 20:00 (19:00etan, zuzendariaren eta Unai Iturriagaren aurkezpena)
astelehena 14: 20:00

Umeen zinema

Phineas y Ferb, la película

Zuzendaria: Dan Povenmire
domeka 13: 17:00

ZORNOTZA

Zornotza Aretoa

One day

Zuzendaria: Lone Scherfig
domeka 13: 20:00
astelehena 14: 20:00

Umeen zinema

Otra película de huevos y un pollo

Zuzendaria: Rodolfo eta Gabriel Riva Palacio
domeka 13: 17:30



Azaroaren 13an, Durangon

ANDRÉ Y DORINE

Kulunka Teatro taldeak keinu-antzerkia eta maskarak baliatuta sorturikoa da **André y Dorine** lan hau. Amama-aitita bikotea da obraren protagonista, eta alzheimerak euren egunerokotsuna zelan aldatzen duen duen kontakizunaren ardatz. Bazkideentzat doan eskaintzen du San Agustinek lan honetara sarrera.

DENBORAPASAK

ZORION AGURRAK >

zorionak@anboto.org • Eguazteneko arratsaldeko 17:00ak arteko epea

	Baigorriko herria	Irungo auzoa	Ontzat hartua
	* Irudiko planeta		
Xahutzer behartua	Errekorra		
Jamaikako	Marola lantzen du		
Aire			Kontsonantea
Gorde			Tonto bihurtu
Arrantza tresna		Gauerokoa	
Egonarri		Xafla	
Aluminioaren ikurra	Zakar		Zuen, haiei
Nafarroako udalerria	Bi ken bat		
		Interjekzioa	
		Ingeleseza da	
Irakinaldi			
Ahalmen			



Azaroaren 13an tia **Montseren** urtebetetzea da. Zorionak eta ondo pasa eguna, Maider eta Heleneren partez. Musu handi bat!



Oier Amantegi Unamunzagak 8 urte beteko ditu bihar, ostirala. Zorionak eta musu handi bat ama, aita, amama eta aitaren partez!



Igor Nazabal Astorkiak azaroaren 9an 2 urtetxo bete zituen. Zorionak Garai eta Oromiñokoen partez. Jarraitu trastotxo izaten!



Azaroaren 9an gure aitaren urtebetetzea izan zen. Zorionak eta musu handi bat Maialen, Helene eta amatxoren partez!



Garaitar bi hauek azaroan urteak betetzen dituzte. **Enekok** azaroaren 9an bete ebazan eta **Iñigok** etzi, azaroaren 12an. Zorionak Garaiko lagunaren partez, ea afariaren bat antolatzen dozuen. Jarraitu umoretsu!



Izane Buruaga Fernandezek atzo, azaroaren 9an 2 urtetxo bete zituen. Zorionak etxeko guztien partez! Musu handi bat eta alai jarraitu!



Anboto jaio zen egunean, azaroaren 9an, 9 urte egin zenituen. 10 urte eta gero Anbotoko langile zu ere! Zorionak **Beñat!**



Zorionak **Ainhoa!** Azaroaren 14an 12 urte egingo dituzulako! Mari Tere, Gerardo, Uxue eta Anartzten partez musu bana!

AZOKA-BASERRITIK PLAZARA >



Abadiño (Traña-Matienea) - Eguaztenetan 10:00etatik aurrera
Durango - Zapatu goizetan
Zornotza - Domeka goizetan

ASTEKO SALNEURRIAK:

Tomateak..... 3 euro/kg	Indabak..... 15 euro/kg
Piper handia.... 3,50 euro/kg	Koliflorra..... 3 euro/kg
Bainak..... 4 euro/kg	Arrautzak..... 3,60 e/dozena
Porruak..... 1,80 euro/tx	Idiazabal gazta....16,50 e/kg
Azenarioak..... 1,50 euro/tx	Gari ogi (semintegrala) 3,30 euro



Zorionak izeko **Itziar!** Atzo urteak bete zenituen eta ederto ospatu genuen merienda eder batekin! Zorionak eta musu handi bat Jauritxikitik, batez ere, Amaiur eta Uxuen partez!



Txikitxo honek **Igor** du izena eta atzo, eguaztena, 2 urtetxo egin zituen. Zorionak Eleizabarkoien partez! Marrubizko musu potolo bat!



Zorionak **Lurdes!** 15 egunero zotz egin dugun tarta zuri egokitu zaizu. Oparia eskuratzeko txartela gura duzunean jaso dezakezu, lurretako Bixente Kapanaga 9an.

BOTIKAK >

Barikua, 11
 09:00-09:00
 • Irigoien (Bixente Kapanaga 3 - lurreta)
 09:00-22:00
 • Larrañaga-Balentiaga (Berrio Otxoa 6 - Elorrio)
Zapatua, 12
 09:00-09:00
 • Gaztelumendi (J.A. Abasolo 2 -Durango)
 09:00-13:30
 • Unamunzaga (Muruetatorre 2C - Durango)
 • Campillo (Montebideo 24- Durango)
 • SanRoma (Uribarri 5 - Durango)
 • Balenciaga (Ezkurdi plaza 8 - Durango)
 • Sagastizabal (Askatasun Et. 19 - Durango)
 • De Diego (Intxaurrondo 22 - Durango)
 • Jaio-Olabarrieta (Erreka 6 - Elorrio)
 • Urizar (Gabiola 2 - Berriz)
 09:00-14:00
 • Irigoien (Bixente Kapanaga 3 - lurreta)
Domeka, 13
 09:00-09:00
 • Unamunzaga (Muruetatorre 2C - Durango)
Astelehena, 14
 09:00-09:00
 • Balenciaga (Ezkurdi plaza 8 - Durango)
 09:00-22:00
 • Eguren, Isabel (Trañabarren 15 - Abadiño)
Martitzena, 15
 09:00-09:00
 • Mugica (Andra Maria 9 - Durango)
Eguaztena, 16
 09:00-09:00
 • Navarro (Artetale, 6, Durango)
Eguena, 17
 09:00-09:00
 • Etxebarria (Montebideo 2 - Durango)

TELEFONO INTERESGARRIAK >

SOS Deiak.....112
DYA94 620 28 00
Gurutze Gorria94 681 09 49
Osakidetza94 600 72 00
Ertzaintza94 466 93 00
Suhiltzaileak112
GARRAIOAK
 Euskotren.....902 54 32 10
 Bizkaibus94 448 40 80
 Pesa902 10 12 10
 Continental Auto945 286 466
TAXIAK
 Abadiño946 814 470
 Matienea606 459 988
 Durango Geltokia....946 811 001
 Elorrio Geltokia946 820 040
 J.L. Uriarte670 402 002
 I. Estebez670 678 273
 M Galeano.....670 409 330
 lurreta946 201 565
 Taxi auzunea688 618 690
UDALAK
 Abadiño94 621 55 30
 Atxondo94 682 10 09
 Berriz94 682 45 84
 Durango94 603 00 00

Elorrio94 658 27 12
 Garai94 681 63 93
 lurreta 94 620 12 00
 Izurtza94 681 35 48
 Mallabia943 17 14 61
 Mañaria94 681 89 98
 Otxandio 945 45 00 20
 Zaldibar94 682 70 16

UDALTAINGOA

Abadiño94 621 55 33
 Berriz94 682 40 36
 Durango94 603 00 10
 Elorrio94 682 02 18
 lurreta94 620 08 88

EGURALDIA >

11 18° EGUENA ☁
 18 22° BARIKUA ☁
 23 23° ZAPATUA ☀
 9 23° DOMEKA ☀
 12 19° ASTELEHENA ☁

* Pasadan asteke eguraldia aldatu gabe joan zen, barkatu eragozenak

ARIES (martxoak 21 - apirilak 20)
 Osasuntsu eta minez: zelan izan daiteke? Bihotzeko minak dira denetan mingarrienak.
TAURUS (apirilak 21 - maiatzak 20)
 Azken ordura arte itxarotegatik gertatu zaizu hori. Hurrengoan adiago ibili beharko duzu.
GEMINI (maiatzak 21 - ekainak 20)
 Hotza, euria... Etxetik irteteko gogo kentzen zaizu. Udaberria bihar helduko balitz, sikiral!
CANCER (ekainak 21 - uztailak 20)
 Zuretzat ebidentea dena, besteentzat aukera bat ere ez da. Birritan pentsatu, badaezpada.
LEO (uztailak 21 - abuztuak 23)
 Ekonomikoki apurka hobera egingo du zure egoerak. Estu zenbiltzen sasoi atzean utziko duzu.
VIRGO (abuztuak 24 - irailak 23)
 Maite duzun horrek bikotekidea du eta zuk egunero ikusi behar, lankidea da-eta. Noiz arte eutsiko diozu?
LIBRA (irailak 24 - urriak 23)
 Inoiz baino zoriontsuago zabilzta aspaldian. Bizitzak bere alde argitsua bakarrik erakusten ditu.
SCORPIUS (urriak 24 - azaroak 23)
 Gaitza da norbere hutsak onartzea, baina ariketa hori egin beharra dago lantzean behin.
SAGITARIUS (azaroak 24 - abenduak 23)
 Bidaiaztea gustuko duzu, baina aspaldian ez zara inora joan. Dirua aurreztu beharra dago, ezta?
CAPRICORNUS (abenduak 24 - urtarrilak 20)
 Harrokeriaren bideak ez zaitu inora eroango. Bide okerra da, arriskuz bete eta baztertzekoa.
AQUARIUS (urtarrilak 21 - otsailak 21)
 Lanez gainezka zabilzta eta ez daukazu etxekoentzat denborarik... Baina ez ahaztu: behar zaituzte.
PISCIS (otsailak 22 - martiak 20)
 Gabonak hurreratzen diren heinean tristetu egiten zara. Oroitzapen denak ez dira zorionsuak.

GURUTZEGRAMAREN SOLUZIOA

N	U	S	V	T	I	V	G
E	T	I	K	V	R	I	•
I	O	•	V	B	V	Z	I
Z	T	V	T	•	T	V	•
•	N	E	P	A	O	R	E
V	O	T	•	U	M	V	•
U	T	Z	E	R	U	V	•
T	•	E	Z	I	V	H	•
R	V	K	I	V	M	V	J
V	K	R	V	M	•	X	•
N	V	U	Z	•			
O	N	V	R	U			
•	V	•	O	•			

Eraiki zubia **EUSKAL HERRIARI**

Ekitaldia

**DURANGO
AZAROAK 17**

19:00etan, Andra Marin

www.amaiur.info

amaiur

"Euskara hizkuntza matematikoa da, oso logikoa"

Familian euskara ez galtzarren etorri zen Euskal Herrira Joseba, ikasi eta bere ondorengoei erakusteko; alabari euskaraz egiten dio

Sustraiei jarraituz etorri zen Ingalaterratik Elorriora Joseba Attard. Euskara ikasi eta ederto egiten du berba; gustura bizi da hemen, Joanna bikotea eta Nahia alabagaz. Esperientzia eta egitasmo berrien bila dabil uneoro, eta hilabeteko umeagaz mundu berri bat zabaldu zaiola dio. Di-Dan dabil diseinatzaile, eta surfa du afizio. Zutundu surf eskolako kidea da, baita Christian Surfers mugimenduko ere.

Zer dela eta etorri zinen Ingalaterratik Euskal Herrira?

1979an jaio nintzen Ingalaterran, Cheltnamen. Nire aita artzaina zen, eta beti batetik bestera genbiltzan. 16 lekutan bizi izan ginen han. Nire ama elorriarra da, eta 25 urtegan joan zen hara, ingelesa ikasteko; aita ezagutu eta bertan ezkondu zen. Gaur egun, hemen bizi gara gurasoak eta bi anaiak; arrebak han jarraitzen du. Lehen udan etortzen izan ginen, eta kalean gaztelera ikasi nuen. 12 urtegan-edo, konturatu nintzen hemengoa nintzela esateko euskaraz jakin beharko nuela. Gainera, aitiba-amamekin ere errazagoa zen euskaraz komunikatzea. Beti geratzen izan nintzen euskara ikasteko gogoz, baina ez nuen aukerarik. 26 urtegan, hona etorri eta ikastea erabaki nuen. Ez daukat lehengusurik, eta ikasi ezean, familian euskara galduko litzateke; horrek bultzatu ninduen.

Elorrion bizi zara. Dagoeneko, hemengoa ere bazara...

Galdera kuriozosa da nongoa zareneko hori. Zer gura du esan horrek? Pertsona sailkatu gura du. Zer da euskalduna? Batzuk esango dute hemen bizi direnak direla, beste batzuek euskaraz berba egiten dutenak... Nire ustez, duela 100 urte oso erraza zen euskalduna izan esatea, baina gaur egun gaitza da. Galdetzen didatenean, zera esaten dut: Elorriokoa, baina baita Ingalaterrakoa ere.

Gustura bizi zara bertan?

Oso gustura. Familia sortu ahal izateko araukin-eta kokoteraino ibili ginen Ingalaterran, eta hemen bizi-kalitatea ezagutu nuen. Hiz-

kuntza, kultura, errespetua eta hainbat faktore batu eta ume-txo bati eskaintzekoa hemen hobeto eskaini geniezaiokeela erabaki genuen.

Di-Dan zabilta lanean.

Geografia ikasi nuen, ez diseinua. Baina musika talde baten nabilen, eta kartelak nik egiten nituen beti. Karrera amaitzean lanik barik geratu nintzen, eta iragarki batean ikusi nuen diseinatzaile junior bat behar zutela. Hortik hasi eta *studio manager* bat egin nuen gero. Hona etortzean, *freelance* ibili nintzen lehenik. Di-Dan oso gustura nabil; dagoeneko bazkide ere banaiz.

Noiztik zara surflaria?

Orain 10 bat urte hasi nintzen surfeatzen. Lanera joan aurretik, goizeko 05:00etan irten da joaten ginen. Askok uste ezarren, hemen baino askoz garatuago dago surfa Ingalaterran. Hango kultura ez da hain oldarkorra eta lehiakorra. Bestalde, han ez litzateke posible Munda-kalako leku batetik ordu



erdira bizi eta surflaria ez izatea...

Christian Surfers mugimenduko kidea zara.

Nazioarteko mugimendua da, Australian jaioa orain 35 urte. Hemengo askorentzako ulertzeko gaitza



dela badakit, baina ez dauka misterio handirik: surflariak eta kristauak gara. Gure fedea konpartitzeko modu bat da, eta ahal bada berbak erabili barik. Niretzako, fedea eguneroko pausoak zelan ematen dituzun esan gura du. Eta ez inork agintzen didalako; nik kristogaz daukat hartu-eman. Bera eta biblia dira nire erreferentziak, baina ez erlijio bat. Jendeak esaten dit: zelan egon zaitezke ANV-ko zerrendan edo presoan alde egon, eta aldi berean kristaua izan? Bibliak berak dio presoan alde egon behar dugula. Gainera, niretzat, inor ez da kristo baino sozialistagoa. Izenagaz eta sineskeragaz estereotipoak sortzen dira.

Zelakoa izan zen euskara ikasteko prozesua?

Euskara ikastea oso gaitza zela entzuten nuen beti, eta nik ez dut hori sinesten. Benetan ikasi gura baduzu, ikasiko duzu. Durangoko AEKn ibili nintzen bederatzi hilabetean, irakasle onekin. Euskara hizkuntza matematikoa da; oso logikoa. Bestalde, tokiko hizkerak asko gustatzen zaizkit; ikusgarria da, hizkuntzari kolorea ematen diote-eta. Derrigorrez mantendu behar ditugu! Oso polita da iparraldera joan eta euskaldun bati ulertzeko zailtasuna edukitzea (barrez).

Anbotok 10 urte bete ditu. Irakurtzen al duzu?

Ikasteko oso baliagarria izan zait. Gainera, familia eta lagunez gainera, bizkaiera ezagutzeko tresna izan zen niretzat. Irakurtzerakoan, elkarrizketa batean egotea lakoa zen niretzat. Berezia da, komunikazioan hori lortzea oso gaitza da-eta.

Joseba Attard •

Diseinatzailea da, surflaria afizioz



Marisa Barrena

Jalgi jaku mundura

Atzo jaio zelakoan eta, atoan hazi jaku; atoan marduldu jaku gure Anboto. Ia konturatu barik heldu jaku hamargarren urteurrena. Hori bai, urterik urtera meioratu egin da, eta indartsu doa nerabegarorantz. Jakin badakigu, 10 urteotan hainbat elikagai, hainbat janari, hainbat mimo jaso dituela gure Anbotok. Hainbat ilusio eta ahalegin egon direla atzean, baina, ez dira alperrekoak izan. Ez horixe!

Hortxe izan dogu, astero astero, inoiz belu heldu badabe be, hasierako ezaugarriak albo batera itzi barik:

Doan heltzen jaku, mosutruk, debalde, milaka etxetara eta milaka irakurle-erengana. Ez da krisi garai honetan meritu txikia!

Iritzi guztiek izaten dabe lekua Anboton; gorri, more zein beilegik. Adin guztietako partaideen ekarpenak; gazteenak zein helduenak. Ez da erronka makala! Inguruko berriak aurkitzen doguz: eskualdekoak, norbere herrikoak, pertsonaia ezagunak. Horrek itzelezko hurbiltasuna emoten deutso. Askotari-ko gaiez osoturik, gainera. Aitatutakoa gitxi baltiz, azken aldi honetan modernotasu-nean pauso garrantzitsua emon dau; horren lekuko, hor daukagu Anboto digitala, Anboto orainkaria, gero eta jende gehiagok erabiltzen dauen tresna. Anboto geure astekaria, euskaltzaleon astekaria, denon astekaria ez eze, orainkaria ere badogu formatu digitalean dogunetik. Izan be, baliabide berriak erakargarriago egiten dabe eta zabalkunde berezia emoten deustie. Mundu guztian irakurri daiteke. Edozein lekutan gagozela; prest, fresko, osasuntsu. Etxepareren eskakizuna betez, "Jalgi jaku mundura" Anboto.

Zorionak Anboto familia osoari; irakurle, idazle, banatzaile, zuzendari eta gainontzeko eragile guztioi.

opari · regalo · delicatessen · otzara gastronomikoa · cesta gastronómica · label · poltsak · bolsos · moda · jantzi osagarriak · complementos

Askatasun Florbidea 7
48200 Durango (Bizkaia)
Tel. + Fax: +34 94 681 72 05
www.euskotzarak.com